308 zenbakia. 1998ko urtarrilak 23. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



MAYCeko zuzendari orokorra

# Fermin Mendizabal

## Merkatal Ganbarako buru

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

GUIPUZCOANA
Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42
Faxa: 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara

EURODIS
PAKETERIA ZERBITZU EGUNEROKOA
• Elkarte europarrera
+
• Suizara,
• Noruegara,
• Poloniara eta
• Hungariara



Euskara ikasi nai dabela?

Esaiozu AEKn talde berria osatuko dala.

aek
Tf. 760518



# Euskarak etengabeko erasoa

**Andres Osa "Sakona"** / Irakaslea

Berriro ere zama astuna ezarriz erasotu nahi dute euskara eta euskalduntze prozesua. Euskaltegiak albiste dira. Huskeria bat aski da sekulako eskandaloa sortzeko.

Udazkenean Zeanuriko udalekuak zarata eta hauts ugari astindu zuen. Norbaitek, pentsatu aurretik ahoa ongi puztu zuelako sua garretan jarri zuen. Izan ere, kargu publikodunak izan behar duen oreka galdu baitzuen. Orain berriro Euskaltegiak ditugu hizpide. AEK tartean. Ezerezaren edo huskeria baten truke lanean diharduten jendearen lepora jaurti dituzte irain guztiak. "Bahiketa" ariketa bat medio zeruak eta lurrak dardarka jarri dira. Estatuko komunikabideak dirudienez beste ezertarako ez dira gauza eta hortantxe dute entretenimendua.

Kanpotik, etsaiak horrela erasotzeak ez gaitu ezustean harrapatzen. Egia da edo izan behar luke etsaiari okasio edo aitzaki txikienik ere ez zaiola eman behar ahal bada behinik behin. Izan ere hemen, hemen ditugun funtzionario eta gainontzeko begi zorrotzez inguraturik gaude eta horien hatzaparretatik ihes egitea ez da hain erreza.

Etsaiak horrela jokatzea, berriro diogu, ez da harritzekoa. Baina hemen, bertako jendeak, euskara suspertu, bultzatu eta babestu behar luketenek, hainbeste ahalegin alboan laga eta espainiar bozifero eta plumifero nazionalisten esanetara jartzea benetan da joera ahula bezain makurra. Giza maila motela adierazten du. Inozoak, lerdoak eta benetan kaikuak garela dirudi. Zurikerietan gabiltzan gizakiak gara. Zergatik?

> *"Bertako jendeak hainbeste ahalegin alboan laga eta espainiar bozifero eta plumifero nazionalisten esanetara jartzea benetan da joera ahula bezain makurra"*

Aizu, nork salatzen ditu telebistan ikusten diren filme eta dokumentalak, biolentziaz gainezka daudenak? Zenbat programa daude haur eta gaztetxoentzat eginak eta biolentzia alde guztietatik daramatenak? Egun bat pasatzen al da horrelakorik gabe? Boxeo "kirol"eko programa luzeak zenbat haur eta gaztetxok ikusten dituzte?

Horrelako kasuak ehundaka direnez aspertu egingo ginateke plazaratzen. Hau guztia egia izanik Euskaltegiko ariketa famatua ozenki, gogor, zalantzarik gabe, ezertan erreparatu gabe salatu eta zigortu dutenek pentsatu behar dute zein arlote jokatzen ari diren etsaiaren aurrean. Begira, nortasunik gabeko jefearen jokabidea da: jende finari erruak bota etsaiari ezer esaten ausartzen ez delako. B

■ barruan



**Fermin Mendizabal**

Mayc-eko Zuzendari orokorra

***"Bergarako Mayc, taldeko beste lantegiak baino errezago integratu da Candy taldean"***

8. orrialdean.



**Aitor Rementeria**

Korrikalaria

***"Rotterdameko maratoia azkarra da eta Donostian egindako denbora hobetzera noa"***

22. orrialdean.



**Carmela Garcia**

Dendaria

***"Gure dendara emakumeak etortzen dira batez ere, eta dudatsuak izaten dira"***

29. orrialdean.

## Orain dela urteak

**BERGARAN GERTATUA**

***1958.*** Bergara futbol taldea hirugarren mailara igo zen. Atotxan finalean Lasarteko Michelini 4 eta 1 irbazi ondoren, hirugarren mailara igo zuen Bergarako futbol taldeak orain dela 40 urte. Andres Alzelai zen garai hartan entrenatzaile eta herrian egundoko harrera egin zitzaion ekipoari. 62-63 denboraldian jaitsi egin zen.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1844.*** Urtarrilaren 19an Tolosa Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten 10 urtetarako.
***1895.*** Urtarrilaren 21ean Balentin Balentziaga jostuna jaio zen Getarian.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1972.*** Erresuma Batua, Irlanda eta Dinamarka Europear Ekonomia Elkartean sartu ziren.

### zozketak

**BONO LOTO**
**Eguakitza 16**
1-14-19-33-39-46 (osag.49/er.7)
**Astelehena 19**
12-17-22-29-39-49 (osag.36/er.7)
**Martitzena 20**
1-12-22-27-45-48 (osag.14/er.0)
**Eguaztena 21**
3-23-28-38-41-47 (osag.1/er.3)

**PRIMITIVA**
**Eguena 15**
8-14-15-16-22-25 (osag.42/er.9)
**Zapatua 17**
13-14-24-27-31-32 (osag.11/er.2)
**Domeka 4 *Gordoa***
21-24-31-41-43-44 (osag.38/er.8)

**ONCE**

| | |
|---|---|
| **Eguakitza 16** (S. kupoitzarra: 082) | 49.458 |
| **Astelehena 19** | 15.190 |
| **Martitzena 20** | 35.176 |
| **Eguaztena 21** | 35.824 |

**BESTE BATZUK**
**Bedelkarreko harakinak**
**5.190**

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Hodei batzuk agertuko zaizkigu zeruan eta euri tantaren bat jausteko arriskua izango da. Tenperatura hotzak izango ditugu eta izotza egingo du. Domekan, hodeiak nagusituko dira eta euria egingo du. 500 metrotik gora elurra.

## Ilargiaren aldiak

Ilberri: Urtarrilak 28
Ilgora: Otsailak 3
Ilbete: Otsailak 11
Ilbehera: Otsailak 19

## Eguzkia

*Domekan*

Sortu: 07:30
Gorde: 17:24

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. ºC | min. ºC | euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguena 15** | 14 | 2 | *8,6* |
| **Eguakitza 16** | 12 | 9 | *5,1* |
| **Zapatua 17** | 13 | 3 | - |
| **Domeka 18** | 14 | 6 | *3,3* |
| **Astelehena 19** | 13 | 10 | *46,5* |
| **Martitzena 20** | 10 | 9 | - |
| **Eguastena 21** | 8 | -1 | - |

### farmaziak

**Eguakitza 23**
CAMACHO. 22:00ak arte
*Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.*
AZKOAGA. 22:00etatik aurrera
*Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.*

**Zapatua 24**
PUY. 22:00ak arte
*Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.*
ESPAÑOL. 22:00etatik aurrera
*Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88.*

**Domeka 25**
PUY. 22:00ak arte
*Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.*
CORCUERA. 22:00etatik aurrera
*Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26.*

**Astelehena 26**
GUALLAR. 22:00ak arte
*San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.*
IRIZAR. 22:00etatik aurrera
*Erguin 11, Arrasate. Tf. 79 12 39.*

**Martitzena 27**
ESTELLA. 22:00ak arte
*Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.*
AMEZUA. 22:00etatik aurrera
*S. Marina 32, Arrasate. Tf. 79 09 74.*

**Eguaztena 28**
MOZOS. 22:00ak arte
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.
ZABALA. 22:00etatik aurrera
*Zarugalde, Arrasate. Tf. 77 16 30.*

**Eguena 29**
CAMACHO. 22:00ak arte
*Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.*
RUIZ. 22:00etatik aurrera
*Magdalena 31, Arrasate. Tf. 79 14 09.*

### ogia

**Domeka 25: Konde.**

## Hamaika ikusteko jaio ginen

**Windsurfe izotz gainean**
Negu partean, Estatu Batzuetako winsurfelariak izoztutako laku eta urtegietan irristaka ibiltzen dira izotzetako patinekin. 100 kilometro orduko abiadurak hartzen dituzte.

## Telefonoak

**Osasuna / Larrialdiak**

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 008 |
| DYA | 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 76 55 76 |
| Larrialdiak | 76 12 94 |
| Anbulantzia | 55 49 62 |
| Osasun Etxea | 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 79 53 00 |
| Asepeyo | 76 16 43 |
| Pakea | 76 13 49 |
| Alcer | 76 12 62 |
| Angiozarko medikua | 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 76 62 23 |
| HIES Ekimena | 79 26 99 |
| Odol emaleak | 76 16 24 |
| Udaltzaingoa | 77 91 06 |
| Ertzaintza | 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 78 28 00 |

**Garraioak**

| | |
|---|---|
| Taxiak | 76 19 50 |
| RENFE | 28 35 99 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Euskotren | 45 01 31 |

**Udala**

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 77 91 00 |
| Euskara Zerbitzua | 77 91 66 |
| Kultur Etxea | 77 91 58 |
| Liburutegia | 77 91 62 |
| Kirol Zerbitzua | 77 91 67 |
| Igerilekuak | 76 20 51 |
| Mizpirualde Egoitza | 76 13 68 |

**Prentsa berriemaleak**

| | |
|---|---|
| Berrigara | 76 03 97 |
| Egin | 76 45 52 |
| El Diario Vasco | 76 81 57 |
| El Correo | 76 10 90 |

**Bestelakoak**

| | |
|---|---|
| | 76 14 92 |
| Epaitegia | 76 13 15 |
| Erregistroa | 76 10 73 |
| Notaritza | 76 26 85 |
| Postetxea | 76 21 40 |
| Jubilatuen Etxea | 76 25 47 |
| Mendi Nekazaritza | 76 36 61 |
| Jardun | 76 57 80 |
| Musika Eskola | 76 23 76 |
| Xipizaro ludoteka | 76 04 68 |
| Bedelkar | |

## jaiotakoak

**Aste honetan, Antzuola eta Bergaran ez da jaiotakoen erregistrorik egin.**

## hildakoak

**BERGARA**

**Maria Cerdan Anso**
Urtarrilak 17, 78 urte

**Maria Lamarain Azkarate**
Urtarrilak 20, 86 urte

## zorion agurrak



**Julen Hurtado**
11 urte betetzen ditu gaur, hilak 23. Zorionak gurasoen, arrebaren eta amamaren partetik.



**Alexander Narbaez**
Zorionak zure 14. urtebetetzean gurasoen eta arrebaren partetik!



**Izaskun Errexil**
28 urte bete zituen eguastenean, hilak 21. Zorionak bere nobixuaren eta kuadrilakuen partetik.



**Ainhoa Unamuno**
16 urte bete zituen eguenean, hilak 22. Mila zorion koadrilakoen partetik.



**Bernarda Alkorta**
Eguenean bete zituen 82 urte. Mila zorion etxeko den-denon partetik!



**Garikoitz Arribas**
12 urte bete zituen eguastenean. Zorion mordoa etxeko guztion partetik!



**Naikari Medina Aspiazu**
13 urte bete zituen eguastenean. Zorionak etxekoen partetik!

*Tarte honen bidez lagunak, senitartekoak edo beste norbait zoriondu edo agurtu nahi baduzu, deitu Berrigarara (76 03 97) edo zatoz bertara: Errotalde jauregia z/g. Anima zaitez!*

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Aide urtxuak abonatzen au

Esapide oso arkaikoa beren burua lotsarik gabe goratzen, abonatzen, dutenei esan ohi zaiena. Ahaide urregitxoak, gertuegiak, laudatzen duela, nork bere burua alegia. Erdarazko "Parece que no tiene abuela"-ren parekoa. Aide hitza, ahaide, senide zentzuan, aspaldi galdua dago, baina esapide honetan mantendu egiten da.



JOSU OKINA

*- Ezta neuk esatiagaittik baiña, ni baiño gizon ondrauagoik ezta Berga guztian.*
*- Bai, e, i be aide urtxuak abonatzen au.*


**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 76 27 93

**KONDE**



PANADEROKUA

Burdinate 1 ☎ 76 02 57

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 76 07 78



**ARREGUI, E.M.**

**AROZTEGIA**

AROZLAN MEKANIKOAK
•
SUKALDEKO ARMAIRUAK
•
HORMA ARMAIRUAK
•
ATEAK, eta abar
•
TARIMAK-PARKETAK
•
NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
•
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38


## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 18:00, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jai egunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05. *Domeka eta jaiegunak:* 08:35, 09:50, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaiegunak:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunetan:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaiegunak:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** *Lanegunak:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaiegunaak:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 17:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 17:00.

# ANTZERKIA

▶ **L'OM Teatro** talde valentziarrak, **"Zapping"** izenburuko lana eskeiniko du datorren eguakitzean, hilak 30, Elorrioko Arriola Kultur Aretoan, 22:30etan.

# MUSIKA

▶ **Zazpi eskale** taldea gaur eguakitza, 22:30etan, Elorrioko Arriola Kultur Aretoan.

▶ **Elliot Murphy**. Zapatuan, 19:30etan Beasaingo Usurbe Antzokian.

▶ **Udal Musika Banda**ren kontzertua domekan, 12:30etan, Novedadesen. Egitaraua: Campo de rosas (Miguel Gonzalez Bastida), Egmont (Beethoven), Borgy and Bess (Gershwin), The wide land with the little church (Van Deeft) eta La cancion del olvido (Serrano).

▶ **Etsaiak**, **Ekon** eta **Parasma** taldeak datorren eguakitzean, hilak 30. Jam.

SAN PAULO JAIAK

## Autokross Saria

**Uberako eskonbreran**
*Noiz: domekan, 10:00etan.*
*Sarrera: 400 pezeta.*

San Paulo jaien barruan, bertako Jai Batzordeak autokross sariaren edizio berri bat iragarri du domekarako. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta dagoeneko inguruko herrietako 60 bat gidarik (herriko hainbat ordezkari ere izango dira) proban parte hartzeko izena eman dute. Iazko jaietan ez zen autokross probarik izan baina antolatzaileek proba ikusgarri hau berreskuratu nahi izan dute aurten. Zirkuitoa Uberako eskonbreran egokitu da eta eguraldiaren arabera zehaztuko da partaideek zirkutoari (700 metro ingurukoa) zenbat bira eman beharko dioten. Partaideek ziru ez dutela lan erreza izango. Txapela jantzi nahi duenak ausardia eta abilezia erakutsi beharko ditu. Kotxe zaharrak eta bereziki gertatutako boogiak ere ikusi ahal izango dira Uberan.

San Paulo jaietako autokross sariak ikusle dexente bildu izan ditu eta domeka honetan ere Bergara zein inguruko motorzaleak Uberara hurbiltzea espero da. Sariei dagokienez, irabazleak trofeoa eta 15.000 pezeta jasoko ditu; bigarrenak 10.000 pezeta eta trofeoa; hirugarrenak 5.000 pezeta eta trofeoa; laugarrenak oilaskoa eta txanpana eramango ditu eta bosgarren postuan sailkatzen denak, azkenik, bi oilasko.



60 bat lagunek eman dute izena dagoeneko autokrosserako.

# BERTSOAK

▶ **Bertso eguna** bihar zapatua, 18:00etatik aurrera, Donostiako Atano III pilotalekuan. Pedro Mari Otaño bertsolari zenari omenaldia. Jarraian Saizar sagardotegian afaria eta festa. Erreserbak: 21 77 98.

# ERAKUSKETAK

▶ **Martxe Aranaren** oleo eta guacheak Nahikarin.

▶ **Julian Redondo**ren "De un viaje a Japon" argazkiak Elorrioko Arriola Aretoan.

# IKASTAROAK

▶ Bergarako **Arteak eta Kulturak** zentroaren ikastaroak otsailaren 2tik aurrera: arte eta eskulan tailerra (izen-ematea Ardatza eta Igarza dendetan); erlajazioa eta arnasketa; yogaren hastapena eta, azkenik, ahozko teknikari buruzkoa.

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara
Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 76 32 48 / 76 34 50 • BERGARA

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 76 71 19

Izen-ematea Etxeparen. Argibide gehiago 76 35 99 telefonoan.

▶ **Alfabetatze, euskalduntze eta EGA** ikastaroak otsailetik ekainera Udal Euskaltegian. Izen-ematea urtarrilaren 30era arte zabalik. Argibideak 76 44 53 telefonoan.

▶ Arrasateko Gazte Zerbitzuak **txalaparta** ikastaroa (urtarrilaren 30etik aurrera) eta **dantza karibearrei** buruzkoa (otsailaren 23tik) antolatu ditu. Informazio gehiagorako: 77 00 65.

▶ Leintz Zeramika Eskolaren eskutik, **dekorazio teknikei buruzko** ikastaroa urtarrilaren 26tik aurrera. 7.000 pezeta. Argibideak: 79 87 95.

# KINTADAK

▶ **1956an jaiotako** bergararren afaria datorren zapatuan, hilak 31, Osintxuko Txuringo jatetxean. Izen-ematea Txuringon, 76 48 63 telefonoan.

# DEIAK

▶ **Beart** elkarteak **ARCO** arte feria ikustera joateko Madrilera irteera antolatu du. Irteera otsailaren 13an, 19:30etan, eta itzulera domekan, otsailak 15. Izen-ematea urtarrilaren 30a baino lehen 77 91 58 telefonoan, 17:00etatik 21:00etara.

▶ **Formigalera eskiatzera** joateko irteerak antolatu ditu Pol-Pol Mendizale Taldeak ondoko fetxetan: otsailaren 7an eta 8an; otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7an eta 8an; martxoaren 19tik 22ra eta azkenik, Alpeetara irteera egingo da apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30etara.

# JAIAK

▶ **San Paulo jaiak Uberan** astebukaeran. Gaur, eguakitza, 22:30etan, auzotar guztientzat bakailao afaria eta ondoren trikitilariekin festa; bihar zapatua 11:30etan haur jolasak; domekan, 10:00etan, III. Autokross saria jokatuko da eta 11:00etan Meza Nagusia izango da; bukatzeko, astelehenean, meza 10:30etan eta ondoren salda banatuko da.

▶ **San Bixente jaiak** domekan Angiozarko Parteitti auzoan. Meza 12:00etan eta ondoren Txinparta taldearekin erromeria. Jarraian salda eta txorizoa banatuko dira, eta Kataide Deba Garaiko txakolinaren aurkezpena egingo da.

# ZINEA

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**

**The Game**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka:17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**Spiceworld: The Movie**
Zapatua: 17:00, 19:30.

**Ilona llega con la lluvia**
Eguena, zine kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Airbud**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**The Game**
Eguakitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia**

**El odio**
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**Se lo que hicisteis el ultimo verano**
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**Titanic**
Eguakitza: 18:30, 22:15.
Zapatua: 18:30, 22:15.
Domeka: 18:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 18:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**

**Siete años en el Tibet**
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Funny Bones**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ANTZUOLA. Gazinema**

**Eraser**
Eguakitza: 22:00.

**Un padre en apuros**
Domeka: 16:30.

## THE GAME

***Zuzendaria**: David Fincher.*
***Aktoreak**: Michael Douglas eta Sean Penn.*
Negozio-gizon arrakastatsua den Nicholas Van Orten-i (Michael Douglas) Conrad bere anaiak (Sean Penn) opari ederra egingo dio: entretenimendurako modu berri eta misteriotsua. Arau bakarra araurik ez dagoela da baina Nicholas jolasean hasten denerako atzera egiteko beranduegi izango da...

## SPICEWORLD: THE MOVIE

***Zuzendaria**: Bob Spiers.*
***Aktoreak**: Spice Girls taldea, Richard Grant eta Alan Cumming.*
Spice Girls taldeko neskak pantaila haundira ere iritsi dira. London-eko Royal Albert Hall emandako kontzertuaren aurretik taldearen gorabeherak azaltzen zaizkigu dokumental honetan. Taldearen jarraitzaileek ahalegin guztiak egingo dituzte eurengana hurbiltzearren...

## ILONA LLEGA CON LA LLUVIA

***Zuzendaria**: Sergio Cabrera.*
***Aktoreak**: Margarita Rosa de Francisco, Imanol Arias eta Pastora Vega.*
Sergio Cabrera zuzendari kolonbiarrak Alvaro Mutis idazlearen nobelan oinarritutako filmea egin du. Ilonak eta Maqrollek putetxe bat zabalduko dute Panaman eta bertara era askotako jendea hurbiltzen da. Negozioa primeran doa baina Larissa misteriotsuaren etorrerak trajedia piztuko du...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 Tf. 76 20 02 BERGARA

ileapaindegia
eder gela
—disdira—
Masterreka 7 • Tf. 76 00 55

**1993tik Mayc-eko Zuzendari orokorra da eta joan zen astean Gipuzkoako Merkatal Ganbarako presidente aukeratu zuten. Fermin Mendizabalek, 52 urte, donostiarra, Victorio Luzuriaga, Shindler eta Alfa enpresetan, Peribas taldean eta Banco Inversionen lan egin du Candy taldearentzako lan egitera Bergarara etorri aurretik. Martitzenean, San Sebastian egunean, elkarrizketatu genuen.**

FERMIN MENDIZABAL
Mayc-eko Zuzendari orokorra

# *"Bergarako Mayc lantegia erraz integratu da Candy taldean"*



**G.** Zertan aldatu da Mayc zu zaudenetik?

**E.** Hasteko, produktu berria egiten dugu; lehen egiten zen garbigailua oso kalitate onekoa eta gogorra zen, asko irauten zuena, baina zaharkituta geratu zen. Oraingoa hestuago eta sinpleagoa da, 40 zentimetroko zabalerakoa. Gure argumentu komertziala horixe izan zen: garbigailu moderno eta hestuagoa egitea, leku txikian sartzeko modukoa.

**G.** Barruko produkzio sistema ere aldatu egin duzue?

**E.** Bai, antolaketa modua sinplifikatu egin genuen, departamendu bakoitzeko langile kopurua murriztuz. Azken bost urteotan 4.000 milioi pezeta inbertitu dira: 3.000 aktibo fijoetan eta beste 1.000 milioi pezeta barne egitura sinplifikatzeko. Plantilla 170 langiletan murriztu genuen, aurrejubilazioekin e.a. Guztia sindikatuekin adostuta. Honekin guztiarekin produktibitatea asko hobetu da. Une honetan garbigailu bat 66 minutuan egiten dugu. 1993an 144.000 garbigailu egiten genituen urtean eta iaz 350.000 produzitu genituen. Bestalde, Candy taldeko beste lantegietatik hozkailuak, ontzigarbigailuak, sekadorak, e.a. hona ekarri eta Bergaratik komertzializatzen ditugu Otsein markarekin.

**G.** Hemen egindako garbigailua Otsein markarekin bakarrik komertzializatzen duzue?

E. Ez, une honetan, Candy taldearentzat beste marka batzuekin, Candy, Rosiers, 01, Juver, Iverna..., Europa guztian zehar komertzializatzeko ere produzitzen dugu Bergaran. %60 esportatzen dugu: alde batetik, Candy taldeak Europan komertzializatzeko eta, bestetik, bertako esportazio departamendutik zuzenean mundu guztira. Bergarako lantegian goitik kargatzeko garbigailua eta lehorgailuaproduzitzen dira bakarrik.

**_"Azken bost urteetan 4.000 milioi pezetako inbertsioak egin ditugu. Bestalde, iaz, 350.000 garbigailu produzitu genituen"_**

**G.** Italiarrak gustora daude Bergarako lantegiarekin?

**E.** Bai, Bergarako lantegia Europan dituzten besteak baino errazago integratu dela aitortu dute. Bestalde, baloratzekoa da sindikatuen jarrera, aldaketa guztiak zuzendaritza eta sindikatuen onarpenarekin egin baitira. Eraldaketa modelikoa izan da.

**G.** Zenbat langile ditu gaur egun Mayc-ek?

**E.** 597. Horietatik 455 fijoak eta gainontzekoak aldi baterakoak, baina 632 langile ere izan dira. Aldi baterako langileetan gora-beherak izaten dira produkzioaren arabera. Honen inguruan, aipatu nahi dut sindikatuekin hitzarmena egin genuela ahalik eta aparteko ordu gutxien sartzeko. Langile batek aparteko orduak sartzen baditu, gero ordu horiek ohiko lanorduetatik kentzen zaizkio eta denbora horretan aldi baterako langileak hartzen ditugu. Bestalde, urtero langile fijo batzuk hartzeko konpromisoa dugu.

**G.** Gipuzkoako Merkatal Ganbarako buru zara.

**E.** Bai, hurrengo lau urteetan, nire aginteak irauten duen bitartean, estatuko merkatal ganbararik garrantzitsuena izatera heltzea da asmoa. Gipuzkoakoa ez da estatuko merkatal ganbararik haundiena, baina prestigio ona du.

# Kontsumoari buruzko kanpaina datorren astetik aurrera martxan

## Herritarrak sentsibilizatu eta informatu nahi ditu Udalak

**Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate zerbitzuak, herriko hainbat talde eta elkarterekin batera, datozen egunotan martxan jarriko duen Kontsumo kanpainaren berri eman zuen eguastenean.**


Udaleko Gizarte Ongizate departamenduaz gain, herriko hainbat elkartek ere parte hartzen du kanpainan.

Kanpaina hau Bedelkarren, Oxirondo Azokako saltzaileen, EHNE baserritarren sindikatuaren eta Mendia Bizirik eta Eki talde ekologisten laguntzaz antolatuko du Udalak. "Kontsumoaren gainean herritarrak sentsibilizatu eta informatu nahi izan ditugu. Horretarako, gaiaren inguruan zerikusia duten herriko hainbat talde eta elkarte bildu nahi izan ditugu kanpaina honetan" adierazi zuen Ines Etxeberria Gizarte Ongizate eta Kontsumo teknikariak.

Udalaren helburua urtean kanpaina bat edo bi antolatzea da. Kanpaina honetarako ia milioi bat pezeta bideratuko dira eta uztail inguruan beste bat antolatzeko asmoa dago. Horretarako Jaurlaritzak 350.000 pezetako laguntza emango du.

Kanpainan zehar hitzaldiak eta kontsumoari buruzko parodiak antolatuko dira eta, horrez gain, hainbat artikulu bilduko dituzten foiletoak eta pegatinak banatuko dira herritarren artean.

Datorren martitzenean goizeko 10:30etan Novedades aretoan herriko ikastetxeetako 13 eta 14 urte arteko gazteei zuzendutako hitzaldia izango da. Bertan, Silvana Huegunek, Oilur taldeko kideak, eta Agustin Aranzabal futbolariak hartuko dute parte. Besteak beste, produktu biologikoen kontsumoa, Labela, pestiziden erabilera, haragiaren kontsumoa edota haragi ona eta txarra bereizteko jakin behar denari buruz jardungo dute.

Bestalde, Oihulari Klown taldeak kontsumoa, kontsumismoa eta bertako janarien kontsumoari buruzko parodiak egingo ditu: astelehen, martitzen eta eguenean herriko ikastetxeetan eta zapatuan herriko kaleetan 11:30, Oxirondo Azokako sarreran 12:30etan eta Plazan 19:30etan.

### Foiletoak eta pegatina

Bestalde, gaiaren inguruan adituak diren hainbat lagunek idatzitako artikuluak biltzen dituen foiletoak banatuko dira. Artikuluak jazteko gaiarekin zerikusia duten hainbat ilustrazio erabiliko dira.

Horrez gain, bi pegatina aterako dira. Alde batetik, plastikozko poltsen gehiegizko erabilpenaren inguruan jendea sentsibilizatzeko eta, bestetik, etxeko buzoietan banatzen den gehiegizko publizitatearen kontrakoa. Azken hauek etxeetan banatuko dira nahi duenak buzoian pegatu dezan.

### Kontsumitzaileen bulegoa

Kanpainaren aurkezpenean, Alvaro Esparza Gizarte Ongizateko zinegotziak adierazi zuen bailara mailan kontsumitzaileen bulegoa jartzeko bilerak egiteko asmoa duela Deba Garaiko Mankomunitateak.

**Hitzaldiak, parodiak, kontsumoari buruzko artikuluak biltzen dituen foiletoak eta pegatinak dira kanpainaren ardatza**




Nuria Zabaletak gidatzen zuen autoak kamioi honen aurka txoke egin zuen eguakitzean saihesbidean, Mayc parean.

# Eguakitzean kotxe istripua izan zuen gaztea hil egin da

## Nuria Zabaleta arrasatearra astelehenean hil zen

**Nuria Zabaleta** Ojanguren, joan zen eguakitzean Bergarako saihesbidean izandako kotxe istripuan larriki zaurituta gertatu zen 26 urteko arrasatearra, astelehenean hil zen Gasteizen. Bere aldeko hileta elizkizunak martitzenean izan ziren Musakolan.

Nuria Zabaletak buruko traumatismoa eta pelbisa, hanketako eta besoetako hainbat hezur eta bazoa apurtuta zituen. Gasteizko Santiago ospitalean burutik bi bider operatu zuten, baina ezin izan zuten bere bizia salbatu.

Istripua joan zen eguakitzean eguerdiko 12:10etan gertatu zen Mayc-en parean. Nuria Zabaletak gidatzen zuen SS-8718-L matrikuladun Ford Fiesta autoak, SS-2390-Z matrikuladun Volvo markako kamioi baten kontra aurrez aurre txoke egin eta gero, bide bazterrean geratu zen kotxea. Nuriak konortea galdu zuen eta suhiltzaileek atera behar izan zuten kotxetik; ondoren, Gurutze Gorriak Arrasateko ospitalera eraman zuen eta handik Gasteizera. Eguakitzean errepidea itxita egon zen istripua gertatu zenetik arratsaldeko ordubiak arte.

Nuria Zabaleta abokatua zen, orain dela gutxi zabaldu zuen abokatu bufetea Arrasaten, eta askotan etortzen zen Bergarako epaitegira lanera. Ama Angiozarkoa zuen, Suesketa baserrikoa. B

## HBren Mahai Nazionala hautatzeko batzarra

**HBko Herri** Batzordeak Mahai Nazional berriaren hautaketarako eta ildo politikoaren eztabaidarako Herri batzarrak antolatu ditu. Lehenengoa eguen honetan izan da eta hurrengoa datorren eguenean, hilak 29, izango da 19:30etan Artatse elkartean. Herri Batzordeak parte hartzeko dei egiten du.

## Presoen aldeko sinadura bilketa

**Presoak** Euskal Herrira ekimenak firma bilketa egingo du zapatu honetan eguerdi aldera Labegaraietan eta Poligonoan. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko egingo da sinadura bilketa.

## UNED: zuzendarigai bakarra aurkeztu da

**UNEDeko** Patronatoak lau urterako zuzendari posturako deia zabaldu zuen eta martitzenean amaitu zen epea. Juan Jose Alvarezen eskaera, oraingo zuzendariarena, bakarrik jaso da.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

# Bergara eta Zumarraga arteko errepidea lau karrilekoa izatea eskatu du Udalak

**Bergara-Ormaiztegi** errepide zatia lau karrilekoa izatea eskatzea erabaki zuen Udalbatzak joan zen eguakitzean. Plenoa eguerdian izan zen eta HBko zinegotziak ez ziren bertaratu, lan orduetan ezin dutelako Plenoetan parte hartu.

Beasain-Durango errepidearen zati horretan bi karrileko bidea egitea aurreikusten du Foru Aldundiak, baina Bergarako Udalak lau karrilekoa egitea eskatu du. Mankomunitateko zortzi Udalek, bestalde, bat egin dute Bergarako Udalaren proposamenarekin.

Diputazioko errepide departamenduak egin duen proiektuan Bergara eta Deskarga artean poliki doazen ibilgailuentzako karril berezia egitea aurreikusten da errepidea egiten denerako, hau da, 2004. urterako eta hurrengo bost urteetan, 2009. urterako, Deskargatik Zumarragara artean beste karril bat egitea. Udalaren alegazioetan jasotzen denez, Zumarraga eta Bergara artean egunero ibiltzen diren ibilgailuen neurketa ez da zuzen egin eta lau karrileko autobidea egitea eskatzen da.


Bergara eta Zumarraga artean lau karrileko errepidea egitea eskatu da.

Bestalde, San Antonioko saihesbiderako alegazioak ere onartu zituen Udalbatzak. Diputazioaren proiektuan jasotzen denez, saihesbidea Eibar-Gasteiz autopistaren proiektuarekin lotzen da eta Udalak ez du hau egoki ikusten, Beasain-Durango eta Eibar-Gasteiz errepideak lotuko baditu ere, San Antoniotik Telleriara arte Zumarragatik datorren errepidea izango delako. Saihesbidea lau karrilekoa izatea eskatu da. B

# Mikel Vicenteren aldeko nesken futbol partidua zapatuan Arrasaten eta jaialdia datorren astebukaeran Udal Pilotalekuan

**Arrasate** eta Oiartzungo nesken futbol taldeek partidua jokatuko dute zapatuan, 16:00etan, Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian. Mondrako nesken futbol taldean lau bergarar ari dira jokatzen eta eurek antolatu dute futbol neurketa hau.

Bestalde, Mikel Vicenteren lagunak eta familiartekoak datorren asteburuko jaialdia prestatzen ari dira. Jaialdian Aritzeta, Alai Taldea eta Bergarako Orfeoiak, Aitzol Mujika eta Josune eta Edurne abeslariek, Jardunekо trikiti eskolakoek, Lezoko Txistulari bandak eta Xamatz dantza taldeak hartuko dute parte. Atsedenaldian saskia zozketatuko da. Oraindik geratzen dira txartelak. Oraindik ez dute ziurtatu jaialdia zapatuan ala domekan izango den. Litekeena da zapatu arratsaldean eskuz binakako txapelketako partiduren bat jokatzea Udal Pilotalekuan. Horrela izango balitz domeka arratsaldean izango litzateke jaialdia; pilota partidurik jokatzen ez bada, zapatuan gaueko 10etan izango da jaialdia.

Bestalde, poliki-poliki Mikel Vicenteren osasun egoerak hobera egiten du eta asteburu honetan etxera ekarriko dute seguruen. Gauzak bide onetik badoaz, aurrerantzean astebukaerak etxean pasatuko ditu. B

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
**Telesforo Aranzadi 2 behea**
☎ 76 21 80-76 06 37


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65

AGOITZ
*Tapizdenda*
Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

# Berrigara

308 zenbakia,
1998ko urtarrilak 23.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argtaratzailea: JARDUN Elkartea.**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Edu Mendibil, Mikel Elkoroberezibar. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Portadako argazkia:
Mayc

Tirada: 5.100 ale.



Copyright: BERRIGARA.



Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599



BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, bidal itzazu zure gutunak helbide honetara: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara, edo etorri bertara.**
**Faxez bidali nahi baduzu hauxe da zenbakia: 76 29 77.**
**Posta elektronikoz bidaltzeko: berrigar@sendanet.es** **Gutunak identifikatu egin behar dira**

### ADITUEN ESANETAN

Ipintza Institutuko ikasketa buruaren, Miguel Angel Alvarezen, "Azterketarako gomendioak" artikuluak amorrua piztu zidan. Egia esan, ez artikuluak berak, baizik eta txokoaren izenburuak: "adituen esanetan".

Noiz jaitsiko ditugu "profesionalak" jartzen ditugun tontorretatik? Profesionalak, adituak, etabarrek idatzi eta hitz egin beharrean irakurtzeko eta entzuteko paperak hartu behar dituztelakoan nago. Baina ez euren artean, ez; jaitsi daitezela eta "profesional" edo "aditua" ez diren pertsonekin bildu, hauek benetan ezagutu, pertsona hauen adimena eta jakinduria eta eskarmentua errekonozitu, eta inportanteena: pertsona hauengandik ikasi, izugarrizko bizitza ikasgaiak ematen baitituzte.

Azterketarako gomendioez ideia pare bat etorri zitzaidan. Borondate onekin egindakoak direla onartzen dut, laguntzeko asmoarekin plazaraturik. Baina nork eginda? Irakasle batek. Azterketak egiten dituenak hain zuzen ere. Eta azterketak egiteko beharizanaz berba bat ere ez?

Jaiotzez ume bat kuriositatez beterik izaten da; plazer handiz egiten ditu ikasketa garrantzitsuak jakinmin horrek eraginda; ez du behar azterketarik ibiltzen edo hitz egiten ikasteko... Lau edo bost urteko umeekin ulertezinak diren azterketak, zergatik bihurtzen dira gero beharrezko? Ez ote gara erantzuten ari sistema ekonomiko eta politiko honek ezartzen digun eskaera bati? Orduan, ez al dugu irakasleok autokritikarik egin beharrik?

Taldean ikasi baino, norbere kontu ikastea hobe dela esateko arrazoirik ez du aipatzen. Hau sinistu beharreko dogma da?

Amaitzeko, nire gomendioa irakasle honentzat: bizitzaz gozatu, azterketarik gabe hezi eta ikasleekin ikasi!

*Emilen Castro Otero,*
*Antzuola*

*BERRIGARAK "Adituen esanetan" izeneko sailerako azterketen gaineko komentario bat eskatu zion Miguel Angel Alvarez Ipintza Institutuko ikasketa buruari, bere iritzia inolako "tontorrean" jarri barik baina gaiaren inguruan zer aportatu badaukalakoan. Sail horretan, gai ezberdinekin zerikusia duten herritarren iritzia edota eman ditzaketen gomendioak jasotzen ahalegintzen gara. Sailaren izenburua ez da garrantzitsuena.*

*Berrigara.*

## tira biraka: bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

## Zein iritzi daukazu azken egunotan hainbeste aipatu den eutanasiari buruz? Legeztatzearen aldekoa zara?



**Ana Mari Dobao**

Galdera zaila da baina kasu bakoitza ondo aztertu beharko litzateke; oso gaisotasun larria izanez gero ulertzekoa da. Ramon Sampedroren kasua ulertzen dut.



**Edu Moreno**

Eutanasia legeztatzearen aldekoa naiz, bai. Sufritzen egotea baino, norberak eskubidea izan beharko luke bere bizitzarekin nahi duena egiteko.



**Miren Berasategi**

Bakoitzak erabaki beharko lukeen eskubidea da eta beraz legeztatzearen aldekoa naiz.



**Bixente Unamuno**

Legeztatzearen alde nago. Urtetan gaisorik, sufritzen dagoen jendearekin, familiarrak, ingururu guztia gaisotzen da. Heriotz duin baterako eskubidea daukagu.



**Maria Jesus Martin**

Sufrimendu haundiko kasuetan eta gaisoak hiltzea eskatzen badu, eutanasiaren alde nago. Eskubide hori izatea ondo ikusten dut.



**Miguel Tola**

Oso gai delikatua da baina hainbat kasutan, oso egoera larrietan, eutaniasaren alde nago, gaisoak eskatzen badu. Soluziorik ez dagoenean sufritzen segitzea ez da lojikoa.

bai, esan!

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, deitu 76 03 97ra eta sail honetan idatziko dugu zuk esandakoa. Identifikatu gabeko mezuak ez dira onartuko.**

**Miren Jauregik** deitu digu mezu bat jartzeko eskatuz. Mirenek dioenez Bolura doan errepidea ez dago egoera onenean. Udal biltegitik trenbide zaharraren zubiraino doan zatian kaminoa oso hondatuta dago eta zulo ugari daude.
Kontutan hartu behar da Bolu aldean jende asko bizi dela eta bertako bizilagunak ez ezik Gorla edo Azkoitiara doazenek, inguruko baserritarrek edota Bolu aldera doazen herritarrek ere sarri erabiltzen dutela errepidea.
Herriaren erdian kaleak ondo asfaltatuta daudela aitortzen du, baina Boluko errepidea ere konpontzea eskatzen du.

ikuspuntua: **mikel lizarralde**

## *Rol jokoak eta kazetariak*



Onda Cero irrati kate espainiarzalean adjtu nuen lehen aldiz: "Donostiako AEKren euskaltegi batean bahiketak antolatzen dituzte euskara irakasteko". Euren iritziak egunero zabaltzeko eskubidea duten lau bat adituk (kazetariak gehienak) bazuten euskararen irakaskuntza kolokan jartzeko "beste" arrazoi bat. Gure hizkuntzaren alde zerbait esateko folklorismora jo behar dutenek, aitzakia txikiena nahikoa zuten euskalduntzean dihardutenen kontra egiteko.

Amara Berriko euskaltegian erabilitako rol jokoak oihartzuna izan behar zuen halabeharrez. Nahiz eta ikasleek (irakasleak gainera) salaketarik ez egin, herri honetako politikariek berehala erantzun zuten: "Egunkari batean irten bada, eskandalizatzeko modukoa izango da". Hortik aurrera, ikerketa, espediente irekitzeak, errepikatzekotan neurriak hartuko direla esatea... Ez genuen uste rol jokoek horrenbesteko eraginik izan zezaketenik.

Akaso komeni da begiratzea rol joko batzuk erabiltzea aproposa den ala ez; baina, hala ere, aitor dezagun: denok bete behar izan dugu gure bizitzan behin edo behin poliziaren papera, lapurrarena, sorginarena, inkisidorearena, fatxarena eta gorriarena. Euskara klasean, ingeleskoan edo antzerki hutsean.

AEKren ameba izan zen orain dela urte gutxi, gero Zeanuriko udalekuko motxilen kasua, orain Amarako rol jokoa. Hurrengoa zein? Ikastola bat? D ereduko ikastetxe bat? Ikusiko dugu. Orain, HABEk ere 80ko hamarkadan antzeko rol jokoak prestatu zituela jakin da. Gizarte honen paradoxak. B

asteko menua

# Endibia entsalada "Luma Gorri"rekin



KOLDO LASA,
*Lasa jatetxekoa*

**OSAGAIAK**
**(4 lagunentzat)**

- Baserriko oilasko bat.
- 8 endibia, dezenteak.
- 2 erremolatxa, erdi tamainakoak.
- 200 cl maionesa.
- Ziapea (mostaza), olioa eta gatza.

**PRESTAKETA**

- Egosi oilaskoa berdurekin eta apioarekin. Salda gozoa lortuko dugu hala.
- Azpil edo fuente batean jarri endibiak eta ziapea, olioa, ozpina eta gatza bota.
- Jarri oilasko egosia, bero dagoela, azpilaren erdian eta bota lehenengo gainetik maionesa eta gero erremolatxa egosia, ondo-ondo txikituta.
- *Obarra: oso inportantea da oilaskoa bero egotea eta gainontzekoak hotz edo epel, behintzat.*

adituen esanetan

# Arbolen inausketa

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

Ezin da esan inausketa ona ala txarra den. Nagusiki hiru arrazoirengatik egiten da: batzuetan produkzioa jeisteko, bestetan efektu estetikoagatik eta, azkenik, gaisorik, arriskuan dagoen adar bat kendu eta arbola mantentzearren. Horrelakoetan inausketa ona da, bere funtzioa daukalako.

Baina sarritan aplikatzen da ohituragatik eta jakin barik zertarako egiten den eta orduan zalantzan jartzekoa da. Herri askotan onartu da produkzioan edota lorazaintzan erabilitako teknika hori eta batzuetan gehiegikeriak egiten dira herrian dauden arbolen funtzioa ondo ezagutzen ez delako. Zenbaitetan zentzu barik aplikatu izan da eta noiz erabili eta zertarako egiten den jakin behar da. Inausketa egiteko sasoiari dagokionez, arbolei egiten zaien kaltea txikiena izateko, zuhaitzek aktibitate gutxien dutenean egin behar da; beraz, negua da garairik aproposena.

Bestalde, herrietan aplikatu izan den inausketa hainbat espezierentzat ez da batere komenigarria. Inausketarekin espezie batzuk hobetzen diren arren, beste batzuetan ez da efekto bera lortzen. Haritzak inaustea, adibidez, astakeria hutsa da. B

bergarako gordailutik

## BERGARAN HILDAKO BI GIZON OSPETSU: Peñafloridako kontea eta Irazusta'tar Migel

**Imanol Sorondo**

Munibe eta Idiakez'tar Frantzisko Xabier, Peñafloridako kontea, Santamañan hil zen 1785eko urtarrilaren 13an, sakramentuak hartu ondoren, eta Parrokiko hilen liburuetan dago idatzirik bere agiria. Hortik jasotako datuak ditugu honako hauek: konte hau 1729ko urriaren 23an Azkoitian jaio zen, bertako parrokian bataiatua izan zelarik. Zenbait erakundetako bazkidea zen: Bordeleko Zientzi eta Arte Ederren Akademiakoa, Madrileko Ekonomi Erreal Elkartekoa eta Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen lehenengo zuzendaria eta bere sortzaileetakoa. Areizaga eta Irusta'tar etxekoandrearekin ezkondua, bost seme eta lau alaba utzi zituen hildakoan. Heriotza sortu zitzaion eguneko iluntzean Markinara eraman zuten, Santamaiñako apaiz taldearen baimenarekin, eta honi ohizko 50 dukatak ordaindu ondoren. Markinan, Xemeingo elizan, eman zioten lurra.



Bestalde, Irazusta'tar Migel 78 urterekin, 1743ko otsailaren 13an hil zen, sakramentuak hartu ondoren. Arkitekto ospetsua zen eta Madrilen Erregerentzako egiten zuen lana. Gaur Santamaiñan ikusten dugun aldare nagusiko erretaula ederra berak egin zuen, irudien eskultorea kontratatu ere bai, eta ezker aldeko bi erretaula txikiagoak, hau da, Errosarioko Ama Birjiñarena eta Animetakoa, ia bukatuta utzi zituen. Alkizan jaio zen, Bengoetxea'tar Anbrosio eskultore trebea bezala. B

## Ermita berriaren zain



**Ermita barik** geratu zaigu San Antonio, joan den abenduaren 27an, Deskarga ibaia bideratu ahal izateko, XIX. mendeko ermita bota zenetik. Udalak etorkizunean Urteagan egingo diren babes ofizialeko etxeen bajuetan ermita bat izango dela agindu zuen eta, bien bitartean, **Kamineruen etxean** ermita moduan erabiltzeko baxu bat egokitzeko konpromezua hartu zuen auzotarrekin. Momentuz San Antonioren irudia ondo gordeta dago Fernandez dendaren biltegian San Martin Agirreren, Amabirjina Sortzez Garbiaren eta Fatimako Amabirjinaren irudiekin, sagrarioarekin eta bataiarriarekin batera. Udaleko biltegian, berriz, ermitako bankuak, altarea eta kanpaia gorde dira. Argazkian, Juan Antonio eta Andres Fernandez anaiak eta Cristina Abetxuko San Antonioren irudiarekin.






## Tanbor hotsak

Donostian eta Azpeitian ez ezik, Sarriegi konpositorearen martxa **Bergaran** ere entzun ahal izan genuen martitzenean, **San Sebastian egunean**. Herriko ikastetxeetako haurrek, sukaldari sonbrerua jantzi eta bibotea margotu ondoren, gogor ekin zioten tanborrak jotzeari, irakasle zein gurasoen gozamenerako. Zarata atera behar den guztietan, hauek prest... Rataplan!!!

## Arbolak behera

Ehun urtetik gorako **bi sekuoia** bota zituzten martitzenean **Usondo parkean**. *Parques y Jardines* enpresako langileek **gaztainondo bat** ere bota zuten. Hiru arbolek usteltze sintomak agertzen zituzten eta, haizeak eragindako istripuren bat gertatu baino lehen, Udalak arbolak botatzea erabaki zuen. Sekuoiak jatorriz Kalifornia aldekoak dira eta ez da oso ohizko espeziea Euskal Herrian. Zenbaitetan 100 metroko altura izatera iristen dira, Usondon zeudenak **30 metro** ingurukoak ziren arren. Udalak, botatako arbolak sekuoiekin edo Usondon diren beste espezie batzurekin ordezkatzeko asmoa azaldu du.



**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**ZUBIETA**
*elektragintza*

**MOTORREN BOBINAKETA, ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK.**

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

# Bergarako OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman ).** Zurradero 6, behea. 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5, behea. 76 56 88 • **IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 76 01 65 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 76 38 54 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 76 03 78 • **PAYROS AITZIBER** Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 • **ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** • **OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian** Barrenkalea 35, 1-ezkerra. 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK: IZETA Maribi** (Gabinete psikopedagojikoa: logopedia, psikomotrizitatea) Simon Arrieta 3, 2-E. 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 76 14 80 • **URKAREGI PAKITA** (Psikologo klinikoa). 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA MARISA** (Psikologo klinikoa). 76 30 76 • **FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria. 9 zenbakia, 1998-1-23*


# Antzuolako herria Interneten

## Ipuin mitologikoa ikusgai Antzuolak Interneten duen orrian

**Multimedia, web orriak, irudi birtualak... eta guzti horrekin batera, herriko mito eta istorio zaharrak. "Herri birtuala" izeneko proiektuaren barruan Angelo Cacciolo italiarrak Eman eta hartu ipuina egin du Antzuolako jubilatuek kontatutakoan oinarrituz. Urtarrilaren 10ean egon zen erakusgai udaletxean eta harrezkero Interneten dago ikusgai.**



Ur haundietatik babesteko garai bateko antzuolarrek urrezko kanpai bat izkutatu zuten pagadi batean. Bi anai hungariar etorri omen ziren herrira zaldiak saltzera azokara. Bertan jakin zuten urrezko kanpai bat zegoela izkutaturik eta aberastu nahian haren bila hasi zirenean sorginekin egin zuten topo. Istorioak dioenez, bi anaiak pago bihurturik kanpaia babesten dute.

Angelo Cacciolik bere lankideekin bildutako informazioarekin batera osatutako istorioa da eta Mikel Larrea alkateak dioenez, "proiektua oraindik gorpuzten ari da; momentuz, honi esker, gure aiton-amonen istorioak errekuperatu ditugu eta horixe da Eman eta hartuk erakusten duena".



*3. mailakoen marrazkiak ikus daitezke* Eman eta hartu *izeneko ipuinarekin.*

**Umeen marrazkiak ere Interneten**

Herriko eskolako 3. mailako ikasleek ere hartu dute parte proiektu honetan. Olentzeroren 9 marrazki egin dituzte eta hauek ere ikusgai daude http: // www. elkarkom. com / euskadi / antzuola / ipuin helbide elektronikoan. Haurrek dioetenez, "Interneterako zirela esan ziguten eta gabon subillaren marrazki bat egin behar genuela; guk ez genuen gabon subillaren ohitura ezagutzen". Oraindik internet zer den oso ondo ez badakite ere, antzinako istorio horren berri izatea gustatu zaie eta marrazkiak ikusteko irrikitan daude.

Badira herrian Antzuolako atala Interneten ikusi dutenak eta geroz eta gehiago dira helbide horretara konektatzen direnak euren etxeetatik, hala ere, "Herri Birtuala" proiektuak aurrera segitzeko asmoa dauka eta ahalik eta erabilgarritasun handiena izatea nahiko lukete proiektua lantzen ari direnak.

Mikelek dioenez, orain arte egindakoa jendea medio hauek erabiltzen ohitzeko modu bat da.

*http://www. elkarkom. com/euskadi/ antzuola/ipuin*, Antzuolako helbidea Interneten

## Antzuolako jubilatuok agur:



**Jose Mari Ugalde**

Iritsi zaigu garaia urteko balantzea egiteko, eta ondo egin diren ekintzak, hain ondo egin ez direnak, beharbada gaizki edo egin gabe utzi direnak, denak aztertu eta balorazioa egiteko garaia.

Hau egiten hasi naizenean burutazio asko sortu zaizkit Antzuolako jubilatu eta pentsiodunei buruz. Dakizuenez multzo haundia gara, gehienak bazkideak, baina oraindik badira bazkide ez direnak ere, eta bereziki horiei nire deia eta era berean galdera. Zer ikusten diguzue zuen gustokoa ez dena gure Elkartean? Gusto haundiz hitz egingo dugu ados jartzeko eta horrela ez balitz, ez litzateke ezer pasatuko.

Denok edo gehienok ikusi, entzun eta irakurriko zenuten gure adineko pertsonei buruz; ahituak gaudela, gastatu besterik ez dugula egiten, beti eskean gabiltzala... Baina herriaren aurrean azaldu behar dugu hori ez dela horrela eta ez garela hondakinetara botatzeko material bat. Ez daukagu gezurrik esan beharrik, baizik eta demostratu oraindik badugula indarra eta borondatea gainezka herriaren alde lan egiteko. Horretarako denok elkarrekin joan behar dugu eta hau da nire deia egiteko arrazoia:

Elkarturik herrian indar haundi bat gara, indar apala, baina gauzak sakon ikusi eta bereizten dakiguna, eta eskatu bakarrik egingo ez duguna.

# Ongi Etorri taberna: 25 urte Isidororekin



*Oso gustora egon ziren afarian Isidoro eta Sabina.*

Orain dela 25 urte hartu zuen Isidoro Quintanak Ongi Etorri taberna. Erronka bat izan da horrenbeste urtetan lanean aritzea berak dioenez, "apustuak egin ziren guk Ongi Etorrin zenbat denbora iraun, aurretik tarte motzean aldaketa dexente izan zirelako". Antzuolara etorri zenean harrituta gelditu zen, "Sabina Zumaetan bizi zen eta bisitatzera etorri nintzaionean euria ziharduen. Baserrira iristeko kristonak egin nituen; hurrengo goizean hura dena berde ikusi eta oihanean nengoela iruditu zitzaidan. Ni herritik etorri berria nintzen, dena laua eta lehorra zen eta hemen, euria, berdea... Antzuolan ez nintzela geldituko uste nuen baina 25 urte daramatzat herri honetan".

Mende laurden honetan herriko ohiturak ere aldatu direla dio, "lehen egunero 50-60 litro ardo edaten ziren, 20 eta 60 urte artekoak kartetan jokoan ikustea normala zen, lanetik irten eta txikitero kuadrilek taberna berean egiten zuten erronda bana...".

Abenduaren 27an ospatu zuen 25. urteurrena tabernan eta egun berezia izan zen Isidororentzat, "orduko prezioak ipini genituen eta jendea bi pezeta rubiekin eta bi errealekin etorri zitzaidan txikitoa edatera. Kafea 7 PTAn, pintxoak 5 PTAn, kopak 12 PTAn eta puruak 6 PTAn ziren. Taberna hartu nuen lehenengo egunean 1.800 PTA atera nituen eta urteurrenean 4.000. Afaria ere egin genuen. 60 bat lagun egon ziren 100 PTAn afaltzen, oso ondo pasatu genuen".

Hurrengo 25 urteetan zer egingo duen galdetzean, "jarraipen bat egon dadin saiatuko gara, baina nire ilusioa da ondorengoek jarraitzea; hemen nire emaztearen eta nire bizitza osoa dago eta egia esan oso gustora gaude; orain ikusi egin behar ondorengoen gogoak".

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •



Zabalo Iturgintza S.L. Bidea eginez
Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 78 71 79, Tf. eta F. 76 64 73
•Gasa
•Berogailuak
•Haize egokitua
•Enpresen mantenimendua
•Lurrun instalazioak
•Bero-aurreztea
•Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
•Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

# Presoen aldeko plataforma eratzen

Euskal presoak Euskal Herrira plataforma eratzen ari dira herrian. Orain dela hilabete batzuk hasi ziren Senideak taldeak egindako proposamena herrian zabaldu nahian eta poliki baina ziur ari dira lanean hamar bat lagun hamabosteroko bileretan.

Plataformako partehartzaile batek dioen bezala "plataforma ahalik eta zabalena eratu nahi dugu, azken finean arazoa guztiona da, eta ezin gara begira gelditu; gainera bazegoen premia, betiko zirkuituetatik kanpo gai honi heltzeko, ikusteko denon gauza bat dela eta ez bakarrik orain arte beti mugitu izan direna".

Jadanik herriko talde guztiei beraien asmoak azaltzeko gutun bana bidali diete, eta plataforman parte hartzeko gonbitea ere egin diete. Beraien planteamendu nagusia indarrean dagoen legea betearaztea litzateke. "Presoen kasuan agintariek ez dute eurok egindako legea betetzen eta guk eskatzen duguna legeak jasotzen duena betetzea baino ez da". Hiru puntutan oinarritzen dira "presoek euren etxeetatik gertuen dagoen kartzelan egoteko eskubidea, kondenaren 3/4ak beteta dituztenak kaleratzea eta gaixotasun larriak dituzten presoak etxeratzea".

### Hurrengo bilera

Plataformak antzuolarren laguntza nahi du eta hurrengo bilerarako deialdia ere egin dute. "Otsailaren 10ean, martitzena, egingo dugu, 19:00etan, *salon parrokial*ean; ateak zabalik daude etorri nahi duen guztiarentzat".

### Asanblada Gaztetxean

Datorren zapatuan, urtarrilak 31, 18:30etan, Gaztetxeko arduradun berriak hautatzeko asanblada berezia egingo da. Antzuolako Gazte Asanbladak interesatu guztiei deialdia egin nahi die asanbladan parte hartzeko.

### Gazinema

Urtarrilaren 23an, Eraser filmea izango da ikusgai 22:00etan. Domekan, urtarrilak 25, 16:30etan Un padre en apuros filmea. Datorren astean, urtarrilak 30, 22:00etan Striptease eskainiko du Gazinemak eta domekan, otsailak 2, Space Jam 16:30etan.

### Jatetxe Gidak

Idolazek San Blas egunean, Deba Garaiko 100 jatetxeren gida salduko du San Blasen , otsailaren 7an bertan ospatuko den mezaren ostean. Jatetxe Gidaren erosle bakoitzari aurtengo egutegi bana oparituko zaio, dena 500 PTAn. Animatu eta on egin!



## MIKEL LARRAÑAGA "MAKI" EIBAR FUTBOL TALDEAN
## "Periko Alonsok sekulako konfidantza ematen du"

**Urtarrilaren 10ean Periko Alonso, Eibar futbol taldeko entrenatzaileak deitu zion, Leganes taldearen aurkako partiduan partehartzeko.**

**Noiz deitu zizuten?**
Eguakitzean deitu zidaten zapatuko partidurako eta sinestu ezinda nengoen. Gainera Perikok kazetariekin deialdia egin zuen eta mikrofonoak eta galderak... ez nekien non nengoen ere.

**Inuzentadarik bai?**
Entrenamendu egunean dutxan nengoela Uria etorri zitzaidan bere dutxan nengoela esanez eta aldatu arte ez zidan esan gezurretan zebilenik. Partiduan ez nintzen irten jokatzera eta orduan ere Uria izan zen "partidu ona e, Maki!" esanaz etorri zena.

**Jokatzerik espero zenuen?**
Jokalari bat kanporatu zutenean bankiloan geunden filialeko jokalari bat eta ni; eta elkarri begiratu genion eta biok jakin genuen ez ginela irtengo.

**Ondo pasatu al zenuen?**
Egia esateko oso ondo; euskaldun giroa dago Eibar taldean, tratu ona izan dut; Perikok sekulako konfidantza ematen du.

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

## Jose Luis Lezeta eta Santos Lizarralde

# Kanpandorrea erre zenekoa

**Orain dela ia mende erdi, 1952ko urtarrilaren 26an, eguerdi aldera, oineztarri batek jota, elizako kanpandorreak sua hartu zuen. Une horretan jendea zegoen eliza barruan eta ondoko "akzion katolika" aretoan. Jose Luis Lezeta eta Santos Lizarraldek kontatu dizkigute orduko gora beherak.**



Egun hartan Jose Luis eta beste hogeita hamar bat lagun zeuden elizan; nolatan zeundeten ordu horretan elizan?

Eskolatik bialduta genden dotriñan Don Leandrokin –orduan dotriñia emoten zan da abadiakin–; beste kuadrilla bat egoten zan akzion katolikan. Hamaika eta erdiak izengo zian eta orduan jausi zan hori; guk danok argixa ikusten giñuan eliza barruan; nik ikusten neban garra moduan dana; oineztarrixa badakizu argittasuna zela izeten dan; argixa jun egingo zan momentu haretan eta gero ba, argittasuna zan.

**Zer egin zenuten orduan?**

Guk pentsau giñuan onena zala akzion katolikara jutia, haura akordauko jakon abadiai, eta harei elizara etortzia akordau jakuen; erdiko pasilluan trink egin giñuan. Gero kanpora irten giñan eta dana txingorrakin zuri-zuri eginda zeguan.

**Susto ona hartuko zenuten?**

Sustua pasau zan, ezer etzan pasau ta. Bi segundu izen zan haura, zarata bat; geuk pe ez genkixen ze zan. Kanpora irten giñanian, txingorra ikusi eta trumoia zala jakin giñuan. Entzunda genden oiñeztarrixan ondoren trumoia zela izaten zan, baiña sustuakin badakizu...

**Eskolara itzuli zinetenean sua al zegoen oraindik?**

Bai, gero arratsaldian, –eskolia oin berrixa da baiña zaharra altuago zeon– bentanatik begira egoten giñan –mutikuak badakizu ihes eginda edo– eta kurutzia jausten ikusi giñuan. Eta oindiokan elizan ikusten da zulo bat kurutziak teillatuan egindakua, eliza barrenaldian, koruan goixan. Haura jausi zanian hirurak edo izengo zian. Don Satur maistruakin egongo giñan –haura zan da mutillendako maistrua–, neskak etzeren gurekin orduan.

**Santos Lizarralde ere gogoratzen da egun hartaz.**

Tellerianian gebitzen lanian eta erten giñan sua emendatzera. Bonberuak etzien atrebitzen teillatura ixotzen, –pentsaizu hortik mangeria tiratzera–; neu ta Joxe Ameztí –sakristaua zan orduan da– kanpaittuko burdiñiai obatu eta ni mangeriai tiratzen han ibilli giñan. Txingorra ziharduan eta gu oiñutsik oiñetakuekin be ezin zan ibilli ta.

**Zenbat denbora aritu zineten sua itzaltzen?**

Kurutziak azpixan hartuta garbittu edo hotzak garbittu bihar ginttuala eta barrura sartu giñan. Etxian bazkaldu giñuan eta elizara bueltau giñan; aiuntamentuak afaixa emon zoskun eskertzeko Ixobanian eta gero gabian errelebua egittera jun giñan. Guk gaba pasau giñuan han, ganbariak pe sua hartzeko peligrua zeukan eta hantxe egon giñan errelebuan.

Hurrengo egunian akordau giñan zetan ibilli giñan kanpaittuko burdiñia ikusi giñuanian zihero erdoittuta.



*1952an erre zen kanpandorrea 1866koa zen.*

"Eta oindiokan elizan ikusten da zulo bat kurutziak teillatuan egindakua"

GOROSTI
Taberna
☎ 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

TXOMIN
garajea
Mekanika orokorra
Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

igor eta Txomin
Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.
ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

# Botikekin bueltaka

## Urjentziazko zerbitzua guztion ahotan




Bailarako udalek herri bakoitzean urjentziazko zerbitzua eskaintzea eskatu dute baina botikariek zerbitzua Arrasaten zentralizatzea proposatu dute.

**Gaueko guardiako farmazien zerbitzua ahoz-aho dabil azken asteotan. Orain arte Bergara eta Arrasateko farmazien artean txandaka egiten zen zerbitzua baina Bergarako Udalak zerbitzua herrian egunero ematea eskatu zion Osasun Departamentuari. Honen aurrean, Gipuzkoako Botikarien Kolegioak urte osoan gaueko guardiako farmazia Arrasaten izatea proposatu du.**

Duela bost urtetik, 1992tik, Arrasate eta Bergarako farmazien artean egiten da gaueko guardiako farmazia zerbitzua. Hileko lehen hamabostaldian Bergarako farmaziaren bat izaten da gauez zabalik eta bigarren hamabostaldian, berriz, Arrasateko farmaziaren bati tokatzen zaio. Arrasaten zortzi farmazia daude eta Bergaran, berriz, bost farmazia dira gaur egun: Puy (Barrenkalean), Mozos (San Pedro kalean), Camacho (Oxirondon), Estella (Matxiategin) eta Guallar (San Antonion). Gaueko zerbitzua 22:00etatik 9:00ak bitartekoa izaten da. Inguruko beste herriei dagokienez, Aretxabaletan eta Oñatin gaueko zerbitzu propioa daukate eta Antzuola, Elgeta edota Eskoriatzako biztanleek, berriz, gertuen geratzen zaien herrira joan beharra dute urjentziazko zerbitzuaren premia izanez gero.

*"Bailara osorako Arrasaten farmazia bat zabalik izatean, garantia osoz bailarako eskaerari aurre egin ahal izango diogu, gaur baino hobeto gainera"* **ANGEL GARAI**

Bergarako Udalak egunero gaueko guardiako zerbitzua Bergaran izateko eskatu dio Osasun Departamentuari. Osasun Departamentua ere zerbitzu konpartitu horren kontra azaldu da. Urtarriletik aurrera gaueko zerbitzua herri bakoitzean eman beharko zela jakinarazi zien Bergara eta Arrasateko botikariei. Gipuzkoako Botikarien Kolegioak, bestalde, beste proposamen bat egin zuen: Deba Garaian, urte osoan, gaueko guardiako farmazia bakarra Arrasaten jartzea. Zerbitzua Arrasateko bi farmaziaren artean jestionatuko lukete eta zerbitzua bailarako farmazia guztien artean ordainduko litzateke.

### Zerbitzu iraunkorra Arrasaten

Angel Garai arrasatearra Gipuzkoako Botikarien Kolejioko ordezkaria dugu. Bere ustetan, "bailara osorako Arrasaten farmazia bat egun osoan zabalik izatean, garantia osoz bailarako eskaerari aurre egin ahal izango diogu. Horretara dedikatuko den botikari bat izango da eta medikamentu guztiak jasotzeko aukera izango da, inolako trabarik gabe gainera. Hainbat herritan, nahiz eta guardiako farmazia egon, lehenbizi tinbrea jo beharra daukazu atenditua izateko edota Ertzaintzari deitu behar diozu aurretik. Planteatu dugun zerbitzu honekin ez da horrelakorik gertatuko: guardiako farmazia edozeinentzat izango da zabalik eta ez da beharrezkoa izango errezetarekin joatea. Gainontzekoentzat ere zabalik egongo da eta nahiz eta inguruko herrietakoek kotxea hartu behar izan, orain artekoa baino zerbitzu hobeagoa eskeiniko da".

Oraindik ez da erabaki Arrasateko zein farmaziak eskeiniko duen zerbitzu hori. Baliteke, urtetik urtera bi farmaziaren artean zerbitzua txandakatzea. Arrasateko erdialdean daudenez, Azkoaga (Ferrerias kalean), Ruiz (Magdalenan) edota Español (Iturrioz) farmazien artean egon daitezke izendatutakoak. Angel Garairen arabera, "ziurrenik Arrasateko erdialdean dauden bi farmazia izango dira eta urte osoan farmazia berak guardiako zerbitzua eskeiniko duenez, jendeak gaur baino errezagoa lokalizatuko du". Angel Garai ziru da orain arteko sistema hobetuko dela: "profesional batek egunez eta gauez lan egin behar du eta, lan baldintzei begiratuta, horrela ezin da ondo lan egin. Askotan jendearen artean ere zalantzak izaten dira farmaziara joateko orduan, botikariak ez molestatzearren. Hemendik aurrera ez da horrelakorik gertatuko".

### Urjentzia gutxi

Angel Garaik azaldu digunez, gaueko guardia zerbitzuak koste ekonomiko haundia dauka: "bi botikario horretan lanean jartzeak 8 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta gastu hori partikularrek ordaintzen dute, ez administrazioak. Horrela ez balitz herri bakoitzean guardiako farmazia jarriko litzateke baina ezin izaten zaio gastu horri aurre egin". Gipuzkoako Botikarien Kolegioak Gipuzkoa osoan esperientzia hau martxan jartzeko asmoa dauka. Horrela, probintziako bailara bakoitzean, guardiako farmazia bakarra zabalduko litzateke gauez. Angel Garairen hitzetan, "oso kasu gutxitan egoten dira benetako urjentzia farmazeutikoak eta horretarako hobe da zerbitzua zentralizatzea".

Vega Mozos, herriko botikarien izenean, azken urtetan erabilitako sistemaren alde dago: "orain arte bezala hobeto geunden. Herriko botikariok, farmaziaren zerbitzua zentralizatu baino, nahiago genuke Arrasaterekin txandakako zerbitzuarekin jarraitzea. Baina zerbitzua zentralizatzeko erabakia goitik dator eta Bizkaian eta Donostialdean hasi dira horrela funtzionatzen". Zentra-






Bailarako botikarien arabera, gaueko zerbitzua apenas erabiltzen da gaur egun.

lizatutako zerbitzua Arrasatera joateko arrazoiak argi dauzka Vegak: "biztanle gehiago dira han, bailara erdian dago eta, horrez gain, osasun urjentziei dagokienez, Bergarak baino aukera haundiagoak eskeintzen ditu, ospitala ere bertan dago eta. Guk nahiago genuen Bergaran eskeintzea baina...".

**Bailaran 22 botika**

Vegak gaueko zerbitzua zentralizatuko dela uste du: "dagoeneko bailarako 22 botikariok baietza eman diogu Kolegioaren proposamenari eta Gasteizetik konfirmazioa heltzea besterik ez da falta". Dena den, gaueko zerbitzua apenas erabiltzen dela esan digu Vegak: "gaur egun gaueko zerbitzua ez da kasu bakar batera ere ailegatzen, eguneko 0,65 urjentzia izaten dira. Benetan beharrezkoa izango balitz, ez litzateke hau egingo eta herri bakoitzak bere guardiako farmazia izango luke. Orain jendeak urjentzia bat duenean medikuarengana edo urjentziazko zerbitzuarengana jotzen du eta orduan edo medikuak berak ematen dio medikazioa edota ingresatu egiten dute gaisoa. Beraz, ahaztutako gauzak hartzeko erabiltzen da batik bat gaur egun; txupetea dela, papillaren bat, preserbatiboak... Egia da errezetarekin etortzea beharrezkoa dela baina askotan, eztabaidan hasi beharrean, etortzen dena atenditzen duzu eta kitto. Baina asko aldatu da zerbitzu honen funtzioa. Nire aitaren denboran adibidez, orain 20 bat urte denetik atenditzen zen farmazietan, kolikoak, desidratazio kasuak...".

Azken hitza auzi honetan Osasun Departamentuak izango du. Bailarako udalek, Bergarakoak tartean, beren protesta azaldu eta alegazioak aurkeztu dituzte, herri bakoitzean zerbitzu propioa egoteko eskatuz. Victoriano Gallastegi alkateak Botikarien Kolegioaren proposamenarekin lehengo egoera txartu egiten dela dio: "lehen behintzat, hilero, 15 egunetan, Bergaran izaten genuen guardiako farmazia. Orain, berriz, urjentziaren bat izanez gero Arrasatera jo beharko dute herritarrek. Bergaran zerbitzu propioa izateko borrokatuko dugu. Eta ez dit balio zerbitzua errentagarria ez dela entzuteak. Hori argi dago baina uste dut botikariak zerbitzu bat eskeintzeko daudela. Lotsagarria iruditzen zait botikariek gai hau zela planteatu duten". B

***"Botikarien azken proposamenarekin orain arteko egoera txartu egiten da. Herrian urjentziazko zerbitzu propioa izateko borrokatuko dugu"* VICTORIANO GALLASTEGI**

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**ZAPATUA BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Moskis-Indargorri | **Poli. Taberna** |
| **10:00:** Ari Ari Ganbara-Poli. Taberna | **Moskis** |

**ZAPATUAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Gazteak-Patatus | **Komando P.** |
| **10:30:** Aldoka Maldoka-Komando P. | **Gazteak** |
| **11:30:** Matxakategi-Uve Bikoitza | **Azpeitxi** |
| **12:30:** Azpeitxi-Mongatxurrak | **Matxakategi** |
| **16:00:** Ufala-Ezinleike | **Etengabe** |
| **17:00:** Etengabe-EH Biterrak | **Ezinleike** |
| **18:00:** SLO-FAC | **EH Biterrak** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Amilotx-Txipiron | **Pagomendi** |
| **10:00:** Pagomendi-Etxagi | **Txipiron** |
| **11:00:** Mongatxurrak-Agiñaspi | **Ortzi** |
| **12:00:** Ortzi-A Ze Flaxa Etxagi | **Mongatxurrak** |
| **13:00:** Arloteak/Oilagorra-Errotagain | **A Ze Flaxa** |
| **16:00:** Bar Canalejas-Bildurbarek | **Eri Sirimiri** |
| **17:00:** Eri Sirimiri-Autoberezi | **Bildurbarek** |
| **18:00:** Jakina PT-Bar Ganbara | **Autoberezi** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** La Peña DML-Usoa | **Aldoka** |
| **10:30:** Indargorri-Aldoka Maldoka | **Azpeitxi** |
| **11:30:** Jauja OH Zerezos-Azpeitxi | **Shaktale** |
| **12:30:** Shaktale-Bayer | **OH Zerezos** |
| **16:00:** Artusamak-Guadalest | **Agirrebeña** |
| **17:00:** Agirrebeña Jatetxea-Manitou | **La Juve** |
| **18:00:** La Juve-Amozkibar | **Manitou** |

## argi!

**Sustoa Shaktale-Manitou partiduan**

Shaktalek eta Manitouk jokatutako partiduan, Shaktale taldeko Jorge Mendibil jokalariari sorbalda irten zitzaion. Hasierako sustoaren ondoren sorbalda bere tokian jarri zuen eta orain ondo dago Shaktaleko jokalaria.

## jokoz kanpo



**Igor Oruesagasti**
ERI SIRIMIRI

**G.** Espero zenuten hirugarren mailan jokatzea?
**E.** Ez, onenen artean sailkatu eta bigarren mailan jokatzeko itxaroipena geneukan. Baina jendea falta zaigu eta hori igarri egiten da.
**G.** Une honetan zein da zuen asmoa?
**E.** Lau lehenengoen artean geratzea da gure helburua.
**G.** Zer postutan jokatzen duzu?
**E.** Atzealdean.
**G.** Golik sartu duzu?
**E.** Normalean bost partiduko gol bat sartzen dut.
**G.** Txapelketako talderik onena?
**E.** Manitou.
**G.** Jokalaririk onena?
**E.** Asko daude, baina bat esatearren, Josu Arana esango nuke.
**G.** Reala UEFArako sailkatuko da?
**E.** Bai, ziur nago.
**G.** Ligako jokalaririk onena?
**E.** Gica Craioveanu.
**G.** Mundiala zeinek irabaziko du?
**E.** Nigeria edo horrelakoren batek irabaztea gustatuko litzaidake.
**G.** Arbitraiekin gustora zaude?
**E.** Bai, normalean bai. Guk ere egiten ditugu hutsak. Antolaketa aldetik ere ez daukat kejarik. Ez nuke ezer aldatuko.

## gora eta behera

**A Ze Flaxa Etxagi lider berria**

Joan zen astean beherantz azaldu ondoren, A Ze Flaxa Etxagiren lana goraipatu behar dugu jardunaldi honetan. Etxagiren aurka jokatutako derbian 9-1 irabazi zuten eta Errotagainek Pagomendiren aurka galdu zuenez, lehen mailako lider berriak dira A Ze Flaxa Etxagikoak. Azpimarratzekoa da Maikel Ortizek, SLOkoak, eta Alex Odriozolak, Txipironekoak, launa gol sartu zituztela.

**Jauja OH Zerezos**

Mongatxurrak eta Azpeitxik jokatu beharreko partidua ez ziren arbitratzera joan. Ondorioz partidu hori suspenditu egin zen.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| A Ze Flaxa Etxagi-Etxagi | **9-1** |
| Errotagain-Pagomendi | **2-5** |
| Agiñaspi-Arloteak/Oilagorra | **3-3** |
| Bildurbarek Opel/Lam-Jauja OH Zerezos | **3-0** |
| Ortzi-Bar Canalejas | **1-2** |
| Artusamak-Ufala | **2-3** |
| Guadalest-Agirrebeña Jatetxea | **2-3** |
| Manitou-Shaktale | **5-0** |
| Bayer-La Juve | **5-3** |
| Amozkibar-Slo | **2-8** |
| Fac-Ezinleike | **5-5** |
| Uve Bikoitza-Moskis | **1-2** |
| Komando Piperrak-Jakina Patxaran Team | **1-5** |
| Bar Ganbara-Eri Sirimiri | **5-1** |
| Autoberezi-Mrw | **12-2** |
| Erdibiterrak-Ganbara Ari Ari | **5-3** |
| Polideportivo Taberna-Gazteak | **3-1** |
| Patatus-Txipiron | **1-7** |
| Amilotx-La Peña DML | **6-3** |
| Usoa-Igandekoak | **4-2** |

## sailkapenak

**Lehen maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | A Ze Flaxa Etxagi | **30** | 13 |
| **2.** | Errotagain | **28** | 13 |
| **3.** | Pagomendi | **25** | 13 |
| **4.** | Mongatxurrak | **24** | 12 |
| **5.** | Azpeitxi Jatetxea | **20** | 12 |
| **6.** | Bildurbarek Opel/Lam | **18** | 13 |
| **7.** | Bar Canalejas | **17** | 13 |
| **8.** | Etxagi | **15** | 13 |
| **9.** | Jauja OH Zerezos | **10** | 13 |
| **10.** | Agiñaspi | **10** | 13 |
| **11.** | Ortzi | **9** | 13 |
| **12.** | Arloteak/Oilagorra | **8** | 13 |

**Bigarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Manitou | **6** | 2 |
| **2.** | Bayer | **6** | 2 |
| **3.** | FAC | **4** | 2 |
| **4.** | SLO | **3** | 2 |
| **5.** | Artusamak | **3** | 2 |
| **6.** | Agirrebeña Jatetxea | **3** | 2 |
| **7.** | Shaktale | **3** | 2 |
| **8.** | Amozkibar | **3** | 2 |
| **9.** | Ufala | **3** | 2 |
| **10.** | Ezinleike | **1** | 2 |
| **11.** | Guadalest | **0** | 2 |
| **12.** | La Juve | **0** | 2 |

**Hirugarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jakina Patxaran Team | **6** | 2 |
| **2.** | Moskis | **6** | 2 |
| **3.** | Eri Sirimiri | **3** | 2 |
| **4.** | Bar Ganbara | **3** | 2 |
| **5.** | Uve Bikoitza | **3** | 2 |
| **6.** | MRW | **3** | 2 |
| **7.** | Autoberezi | **3** | 1 |
| **8.** | Komando Piperrak | **0** | 2 |
| **9.** | Aldoka Maldoka | **0** | 1 |
| **10.** | Indargorri | **0** | 1 |
| **11.** | Matxakategi | **0** | 1 |

**Laugarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Txipiron | **6** | 2 |
| **2.** | Erdibiterrak | **6** | 2 |
| **3.** | Amilotx | **3** | 2 |
| **4.** | Polideportivo Taberna | **3** | 2 |
| **5.** | Igandekoak | **3** | 2 |
| **6.** | La Peña DML | **3** | 2 |
| **7.** | Etengabe | **3** | 1 |
| **8.** | Usoa | **3** | 1 |
| **9.** | Ganbara Ari Ari | **0** | 2 |
| **10.** | Gazteak | **0** | 2 |
| **11.** | Patatus | **0** | 2 |

# ESKOLA KIROLA

## IKUSI ETA IKASI

**FUTBOLA**
**Jaurtiketa libre ez-zuzena:**

Kasu hauetan adierazten du epaileak:
- Baloia modu arriskutsuan jokatzean.
- Aurkakoari bidea oztopatzean.
- Arauz kontra kargatu edo erasotzean.
- Atezainak, baloia eskuetan duela, lau urrats baino gehiago ematen dituenean.
- Askotan epaileek falta horiek guztiak txartel gorriaz edo horiaz zigor ditzakete.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



## TXINPARTAK

### Benjaminek asteburu honetan bukatzen dute futbol txapelketa

Asteburu honetan jakingo dugu ze taldek jokatuko duten Pazkuetan benjamin mailako futbol txapelketaren finalak. Futbolaren ondoren benjaminak minieskubaloiarekin hasiko dira datorren asteburuan.

### Mariaren Lagundiko neskak liderrak futbolean

Mariaren Lagundiko infantil nesken taldea Deba Garaiko eskolen ligan lider postuan dago. Eskualdeko liga otsailaren 14an bukatuko dute eta horrela jarraitzen badute Gipuzkoa mailako txapelketa jokatuko dute.



## Aranzadi 2 taldea

Aranzadi 2 taldea Ruben Montero, Urko Sanchez, Ander Arazkonaga, Ion Gantxegi, Iosu Santos, Ander Bolibar, Ander Iturriagagoitia, Maite Garitano, Amaia Goienetxea, Garazi Belastegi, Eneko Olaria eta Ander Plazaolak osatzen dute. Partidu asko ez dutela irabazten esan digute, baina elkarren artean ondo konpontzen direla. Saskibaloi txapelketan partidu bakarra irabazi zuten eta orain gehien gustatzen zaien kirolean, futbolean, hobeto aritzeko asmoa dute. Kirolik nekezena zein den erabakitzerako orduan ez dira ados jartzen, batzuek eskubaloia dela diote: "pausuak eta ikastea oso zaila da" eta beste batzuentzat, berriz, badmintona.



## Mariaren Lagundia B taldea

Mariaren Lagundia B benjamin taldea Mikel Mujika, Ander Mengual, Mikel Marauri, Gorka Larrañaga, Aitor Maiztegi, Ioritz Polanco, Mikel Etxaniz, Ibon Egaña, Iñigo Moya eta Sergio Moralesek osatzen dute. Ondo hasi dute futbol txapelketa eta partidu bat galdu eta beste bat irabazi egin dute. Hauei ere futbola da gehien gustatzen zaien kirola eta zapatu goizetan kirola egiteko gustora jaikitzen direla esan digute. Taldeko jokalari batzuk goizeko 8etarako jaikitzen direla ziurtatu digute. Kirolari onak izateaz gain, ikasle onak ere badirela diote eta taldeko jokalaririk onena Gorka Larrañaga dela esan digute.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Infantilak/Mutilak**
Zapatua. Ipintza futbol zelaia.
**11:15:** Ipintza DBH-Arrasateko Institutua.

**Benjaminak**
Zapatua. Ipintza futbol zelaia.
**10:30:** M. Lagundia B-Antzuola A.
**09:45:** Elgeta-Aranzadi 2.
**09:00:** Aranzadi 1-Aranzadi 6.
**09:45:** Antzuola B-M. Lagundia A.
**10:30:** Aranzadi 3-San Martin.
**09:00:** Aranzadi 5-Aranzadi 4.
**11:15:** Aranzadi 6-Antzuola A.
Zapatua. San Martin ikastetxea

### SASKIBALOIA

**Infantilak/Neskak**
Zapatua. Mariaren Lagundia.
**11:00:** Aranzadi-Torrebaso.

**Infantilak/Mutilak**
Zapatua. Mariaren Lagundia.
**10:00:** Aranzadi-Txantxiku DBH 1A

### PILOTA

**Alebinak/Neskak**
Zapatua. Udal Pilotalekua.
**09:30:** San Martin, Aranzadi 13, Aranzadi 14.

**Alebinak/Mutilak**
Zapatua. Udal Pilotalekua.
**10:20:** Aranzadi 8, Aranzadi 9, M. Lagundia A.
**11:10:** M. Lagundia B, Aranzadi 10, Aranzadi 12.
**12:00:** Aranzadi 7, San Martin, Aranzadi 11.

## Futbola



Emaitza bikainak lortu dituzte BKEko futbolariek azken jardunaldian. Talde nagusiak 3 eta 0 irabazi zion Kilimoni eta lidergoan tinko jarraitzen du. Neskek Arrasateren kontrako derbian 0 eta 4 irabazi zuten Atxabalpen. Lehenengo mailako jubenilek galdu barik jarraitzen dute 4 eta 2 irabazi baitzuten. 2. mailako jubenilek igoera faseko bigarren partidua berdindu egin zuten Zarautzen. 1. mailako kadeteak berdindu egin zuen Azkoitin eta postu bakar bategatik ez da jeisten. Infantilek 5 eta 1 galdu zuten.

Halere aurreko jardunaldian Realaren kontra berdin du egin zuten eta hori da donostiarrek denboraldi osoan galdu duten puntu bakarra.

## Eskubaloia



Lehen Maila territorialeko taldeak gol bakar bategatik irabazi zion Legazpiri. Partidu oso gogorra izan zen eta ia partidu osoan zehar markagailuan atzetik joan ondoren, partidua bukatzeko 8 segundu falta zirenean, Aldanondok garaipenaren gola sartu zuen. Domekan Hernaniren kontra jokatuko du talde nagusiak. Partidua irabazten badute hernaniarren parean jarriko dira sailkapenean eta jeitsierako postuetatik aldendu egingo dira.

Jubenilek galdu egin zuten Urolaren kontra eta 4. postuan jarraitzen dute. Kadete neskek sekulako jipoia eman zieten Zestoakoei 34 eta 1 irabaziz. Neskek 2. postuan jarraitzen dute. Kadete mutilek berdindu egin zuten.

## Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak Aramaio faroltxo gorriaren aurka irabazi egin zuen. Halere, bergararrek nahiko partidu kaskarra egin zuten eta azkenean 2 punturengatik irabazi zuten. Emaitza horrekin igoera fasea jokatuko duen multzoan sartzeko aukerak haunditu egin dituzte. Orain 3 partidu geratzen zaizkie; horietatik bi etxean jokatuko dituzte. Asteburu honetan bigarren postuan dagoen Zornotzaren kontra jokatuko dute.

Bestalde gainontzeko taldeek galdu egin zuten. Asteburu honetan jubenilek partidu gogorra jokatuko dute Askatuaken kontra. Zaila den arren, Mariaren Lagundiko kantxa aprobetxatuz irabazten saiatuko dira.

## *AITOR REMENTERIA / Korrikalari afizionatua*

# *"Rotterdameko maratoia azkarra da"*

**Aitor Rementeria korrika egiten hasi da txirrindularitza munduan hainbat urte eman ondoren. Joan zen azaroan Donostiako maratoia korritu zuen eta apirilean Rotterdamen izango den maratoira joateko prestatzen ari da.**

**G.** Zenbat denbora ibili zinen txirrindularitzan?

**E.** 20 urtera arte txirrindularitzan aritu nintzen. Orduan soldaduzkara joan nintzen eta duatloia egiten hasi nintzen. Bizikletan istripu bat izan nuen, kamioi batek besoa zapaldu zidan eta. Ordutik bizikleta lagata daukat.

**G.** Maratoiak asko exijitzen du, ezta?

**E.** Bai egunero entrenatu behar zara. Azkenengo hilabetean egunero 20 km inguru egin behar dituzu. Hasieratik ezin zara hasi 20 km egiten. Niri 10 km jarraian egitera iristea hilabete bat kostatu zitzaidan. Txarrena hasiera izaten da.

**G.** Zergatik aukeratu duzu Rotterdameko maratoia?

**E.** Maratoi nahiko azkarra da eta Donostian egindako denbora hobetu nahi dut.

**G.** Donostiako maratoiaren ondoren hainbat lasterketatan aritu zara, ezta?

**E.** Bai, Gasteizen, Bergarako San Silbestren eta San Antonen aritu naiz. Agorrosineko igerilekuetan entrenatzen garenok lasterketetan elkartzen gara eta giro oso ona izaten da.

**G.** Antonio Merino da zure entrenatzailea?

**E.** Bai, berak urte pila bat darama korritzen eta Diego Garziaren entrenatzailearekin dabil eta prestaketa plan oso ona egin dit.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Beasain**
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30.
Ipintza futbol zelaia.

**Bergara-Martutena**
Lehen mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15.
Ipintza futbol zelaia.

**Bergara-Ostadar**
Emakumezkoak.
Domeka. 10:15.
Ipintza futbol zelaia.

**Bergara-Allerru**
Bigarren mailako jubenilak.
Domeka. 11:45.
Ipintza futbol zelaia.

**FUTBITOA**

**Lagunak-OIVE**
Eguakitza. 22:15. Kiroldegia.

**ESKUBALOIA**

**Bergara-Almen**
Zapatua. 17:15.
Jubenil mutilak. Kiroldegia.

**Bergara-Leizaran**
Zapatua. 16:00.
Kadete mutilak. Kiroldegia.

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Askatuak**
Zapatua. 16:00.
Jubenil mutilak.
Mariaren Lagundia.

**Bolsos Bergara-Zornotza**
Zapatua. 19:00.
Senior mutilak.
Labegaraietako kiroldegia.

**Bergara-Santo Tomas**
Zapatua. 12:15.
Kadete mutilak.
Mariaren Lagundia.

**PILOTA**

**Bergara-Arrasate.**
Deba arroko txapelketa
Martitzena. 19:00.

**Profesionalak**
Alustiza eta Zezeaga, Agirre eta Errandonearen aurka.
Olaizola eta Arretxe, Etxaniz eta Elkororen aurka.
Zapatua. 16:45.

# Axen Garitano Pirena bukatzera

## Formigaletik La Molinaraino joango da hamairu egunetan

Axen Garitano laugarren aldiz txakurrez tiratutako leren Pirena txapelketan izango da. Probaren aurkezpena gaur eguerdian egitekoa zen Iruñean eta domekan Formigaletik irtengo dira. Aragoiko pirineoak txakur lerekin zeharkatu ondoren, Kataluniako La Molina eski estazioan bukatuko da proba otsailaren 7an. Aurtengoa Pirenaren 8. edizioa da eta joan zen urtean Garitanok ezin izan zuen proba bukatu, adubtoreak apurtu baitzituen. Domekan hasiko den probara Garitanok 12 txakurreko lera bat eramango du eta esan digunez: "nire helburua lasterketa bukatzea da. Joan zen urtean ezin izan nuen bukatu adubtoreen lesioarengatik eta aurten bukatzeko gogo haundiarekin noa. Aurtengoa 4. urtea izango da parte hartzen dudana eta proba gogorra izan arren, ondo prestatuta noa. Gainera Nutro etxeak laguntza eman dit eta oso garrantzitsua da".




Axen 4 aldiz izan da Pirenan eta 12 txakur eramango ditu.

## 24 korrikalari San Anton auzoko herri-krossean



Juan Aldaik irabazi zuen joan zen igandean jokatutako San Antoneko krosa. Probak dituen 7 km eta erdiak egiteko 25 minutu eta 30 segunduko denbora behar izan zuen. Bigarren Jose Antonio Otxoa izan zen. Emakumezkoetan Amaia Mazorriagak irabazi zuen eta beteranoetan Aitor Erañak. Gazte mailan Mikel Gallastegi izan zen garailea eta sari berezia Jose Luis Fernandezentzat izan zen. Lasterketaren aurretik minutuko isilunea izan zen Juan Gonzalezen oroimenez.

## Ion Sanchez Estatuko selekzioarekin entrenatu da

Ion Sanchez futbolari bergararra Espainiako 15 urtez azpiko selekzioarekin entrenatu da astelehenetik asteazkenera bitartean Madrilen. Eibar taldeko jokalaria Estatu osoko beste 24 futbolarirekin aritu da. Berak esan digunez: "oso gustora nago. Astelehenean Madrilera heldu nintzen eta astearte eta asteazken goizetan gure arteko partiduak jokatu genituen. Lehenengo egunean ez nintzen oso ondo ibili, baina bigarren egunean ondo ibili nintzen". Iñaki Saezen aginduetara entrenatu zen Sanchez eta



deialdia datorren urtean Espainiako selekzioak jokatuko duen 16 urtez azpikoentzako Eurokoparako jokalariak hautatzeko zen. Martxoan Euskadikoarekin Errioxa eta Castilla-La Mancharen kontra jokatuko du.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

IZADI PILI GISASOLA
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
Zurradero 2 behea.
☎ 76 58 83

**MULTIOPTICAS**



**Zure begientzako onak**

Barietate haundiko monturak, gaur egungoak, erakarleak, familiako edozeinentzako pentsatuak. Kalitate hoberenarekin, diseinu berritzaileekin. Eta sinestezinezko prezioarekin : **3.150 pta.**

Multiopticas-en aurkituko duzu bakarrik horrelako bilduma.

**Zure poltsikorako onak**

**Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :**




- **MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.**
- Ordainketa **30, 60** edo **90** egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.




TRAVEL CLUB
Comprar y Disfrutar

**LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB » PROGRAMAKO PUNTUAK**

# 3.150 pta.

# Bonardi Bilduma

**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16
Tel. 76 15 75
**BERGARA**

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 79 29 95
**ARRASATE**

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 88 99 88
**ORDIZIA**

**EIBAR**

Bidebarrieta, 2
Tel. 20 05 22
**EIBAR**

**ERRENTERIA**

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 51 78 11
**ERRENTERIA**

R.P.S. Nº 421/96

***11 urtetik gorako gaztetxoek oraindik aukera daukazue Gartzela Zaharrera etortzeko.***





***Aukera ugari dituzue...***

Txistorradak, irteerak (patinatzera, mendira...), ekintza bereziak, musika entzuteko txokoa, jolasak, mahai jokoak, futbolina, ping-ponga, dantzak, ikastaroak (gitarra, antzerkia...)

EKAINERA ARTE ZABALIK ZAPATU ETA DOMEKETAN 16:00ETATIK 20:00ETARA.

***Anima zaitez! Egin karneta!***



*Informazioa:*
*Gartzela Zaharra*
*Tf. 76 36 61.*

Jardun

# Iragarki sailkatuak

**Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.**
Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu.
Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar da modulo bakoitza.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
Eguasten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. INMOBILIARIAK**

**5. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**7. MOTORRA**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. KONTZESIONARIOAK**

**9. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**10. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**11. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Pisua salgai Aranerrekan. 76 42 65 (gauez).

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Pisu amueblatua salgai. Berria, 90 m2. 76 51 51.

### Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokatuko nuke. 76 04 57.

### Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrekan. 76 24 57.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Ibargarai kalean. Milioi bat. 76 21 61.

Garajea salgai Espoloian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. 76 15 37.

### Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. 763032.

Garajea alokairuan Ibargari 37an. 76 3376.

Garajea alokairuan Ibargarai kalean. Deitu 76 16 38 telefonora.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 7650 00.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 1189.

Lokala salgai Dr. Fleming kalean. 76 00 84/35 83.

### Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

### Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 761164.

Lau gelatako bulegoa alokairuan Bolun (osorik ala gelaka). 76 58 91.

### Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

## 5. LANA

### Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Deitu 76 56 66 telefonora.

Klinika auxiliar batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Neska tituludunak administratibo lanak egingo lituzke. 907 94 06 67.

### Eskaerak

Abestu eta pianoa edo teklatuak jotzen dituen neska behar da. 73 05 65 (gauez).

Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 76 51 20 (12:00etatik 13:00etara).

Eguzkitza erretegirako emakume/gizonezko bat behar da sukaldari lanetarako. 76 56 03 (11:00-16:00 edo 19:00etatik 22:00etara).

Haur bat zaintzeko emakumea behar da. 76 48 16.

## 6. IRAKASKUNTZA

### Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. Deitu 78 71 32 telefonora.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika. 76 24 31.

Mate klaseak ematen dira. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. Deitu 76 70 40 telefonora.

Mate, fisika eta informatika klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.
OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26telefonora.

### Eskaerak

Enpresaritza zientzietako irakaslea behar da matematika irakasteko 76 38 28.

Ingeles klaseak jasoko nituzke jatorrizkoa den batengandik. 76 38 71 (Larraitz).

Frantses irakaslea behar da. 76 06 87.

## 9. ANIMALIAK

### Saldu

Pastor aleman txakurkumeak. 76 08 21 (Unai).

## 10. DENETARIK

### Saldu

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. 76 43 37.

Mendi trabesiako Nordica TR9 botak salgai, 42-43 zenbakia. 75 16 80 (Jon).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makinaerrejistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Kawasaki Vulkan motorra salgai. 76 70 21.

Zumarraga-Gasteiz joan-etorria egiteko kotxea behar da. Hiru ikasle. 72 24 57 (Julene).

### Galdu

Balore sentimental haundiko erloju bat galdu zait. 76 39 33, Nuria.

Gabonetan eraztun bat galdu nuen. 76 31 03.

Zilar-koloreko emakume-erlojua galdu dut Alkabieta-Seminario tartean. 76 17 18.

## Miguel Fernandez, maketa egilea

# *"Erregenetan beti eskatzen nuen trena"*

**Txikitatik trenak izugarri gustatu izan zaizkio Osintxun bizi den Miguel Fernandez tolosarrari. Orain dela bost urte etxeko ganbaran tren maketa bat montatzeari ekin zion eta dagoeneko 94 metroko maketa osatu du. Detaile txikienik ere ez da falta.**



Orain dela 5 urte ekin zion tren maketa montatzeari eta dagoeneko 94 metroko maketa osatu du.

**G.** Zela hasi zinen maketa montatzen?

**E.** Txikitan, Erregenetan, beti eskatzen nuen trena baina sekula ez zidaten ekartzen. Orain dela bost bat urte anaiarrebek tren makina bana oparitu zidaten eta orduan buru-belarri hasi nintzen maketarekin. Dagoeneko 94 metroko trenbidea osatu dut eta amaitzen dudanerako 150 metro inguru izango dira. Astero 6 bat ordu ematen ditut honetan.

**G.** Maketa egiteko zertan oinarritu zara?

**E.** 1940ko hamarkadan girotutako maketa da. Geltokia Bonn-goaren kopia da, Koloniako Katedrala ere jarri dut eta detaile txikienak ere landu ditut: ospitaleko tximiniatik keak irteten du, iturri batek ematen duen ura antikongelantea da (hobeto ikusteko) eta orain Donostiako funikularra lantzen ari naiz. Bestalde, makinei dagokienez, Eusko Trenbideak-en bagoiak dauzkat (350 daude eta nik horietako bi dauzkat), Madril-Irun expresoaren kopia ere bai, 17 bagoiko merkantzia-trena...

**G.** Piezak eta makinak non lortzen dituzu? Afizio garestia da?

**E.** Material gehiena alemaniarra, austriarra eta poloniarra da eta trenbidea, berriz, ingelesa. Erreplikak katalogo bidez lortzen ditut eta geltokikoa montatzen, adibidez, 14 bat ordu eman nituen, 750 pieza baitauzka. Nahiko afizio garestia da, bai. Lokomotora batek, esaterako, 35.000 pezeta inguru balio dezake.

**G.** Trenarekin zerikusia duen materiala ere bildu duzu.

**E.** Bai, Tolosako geltokiko argiak dauzkat; antikuario lagun batek Medina del Campo estazio-buruaren lanpara lortu zidan; Castejongo estazio-burua zenaren seinale-txilibitua ere badut; 70 urteko oliontzia... Horrelako materiala biltzea gustatzen zait eta lagunek oparitzen didate askotan.

**G.** Trenean bidaiatzea gustatuko zaizu...

**E.** Trenean ibiltzea beti gustatu izan zait baina elbarritua naizenez, tren estazioetan eragozpenak izaten ditut. Horregatik, maketako ospitalaren ondoan, "aparkatzea debekatua, elbarrituak izan ezik" dioen trafiko seinalea jarri dut. B

***"Dagoeneko 94 metroko trenbidea osatu dut eta amaitzen dudanerako 150 metro izango dira"***

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
☎ 76 51 65

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar 1 ☎ 76 42 41

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 76 31 02

kronika

# Def con dos Jam aretoan

## Espektakulu ikusgarria eskaini zuten madrildarrek

***Def con dos* madrildarrek eta *Berri txarrak* naparrek Jam aretoa bete zuten joan zen eguakitzen. Hard-core, heavy, hip-hop edota rap soinuak entzutera toki askotatik etorritako 600 bat gazte bildu ziren.**

Alex de la Iglesia zine zuzendari bilbotarraren lehen bi luzemetraien soinu bandaren egileen aurretik, Berri txarrak taldea izan genuen taula gainean. Bere lehen diskoko kantuak eta Blur taldearen *Song 2* abestiaren bertsioa eskaini zuten ia ordubeteko saioan. Ikusleak gustora laga zituzten, baina bukaerara arte ez ziren larregi animatu.

Def con dos madrildarrek *Ultramemia* azken laneko kantuak eta kalean dituzten lau diskoetako ezagunenak eskaini zituzten. Musikak ez ezik, antzerkiak ere tokia du ikuskizunean; benetako espektakulua: zazpi lagun taula gainean saltoka, ondo aukeratutako argi joku ikusgarriak, soinu garbi eta zuzenak. Hasiera ikusgarria izan zen: helikoptero helizeak zirudien argi jokuak eta sirena hotsak. Ia bi orduko saioa eskaini zuten eta amaitu zutenean, beste bi bider irten behar izan zuten ikuslegoak hala eskatuta.

*El dia de la bestia*ren egileak orain dela lau bat urte San Martin jaietan ere izan genituen Bergaran eta ordutik ez dituzte planteamenduak aldatu, ildo beretik jarraitzen dute. Halere, gero eta jarraitzaile gehiago dituzte, zintzoak eta fidelak gainera. Eguakitzean Jamen bildu zirenek, gazte jendea batik bat, madrildarren abestiak eta kontsignak buruz zekizkiten. Artistak eta ikuslegoak bat egin zuten berehala; horixe da zuzenekoaren xarma. B



Def con dos taldeak Jam aretoa bete zuen joan zen eguakitzean.

erreseinak



Bertsozale Elkartea
***Bertsolari Txapelketa Nagusia 97***
Bideoa. VHS

Bertsozale Elkarteak betsolari txapelketa nagusiko bertso onenen bilduma egin eta lau euskarritan kaleratuko du: liburu, kaset, CD eta bideoan. Bideoa kalean da, ordu eta erdiko iraupena du eta finaleko bertso onenak biltzen ditu. ETBk hartutako irudiekin osatutako bideo honetan Egaña, Lizaso, Iturriaga, Irazu, Mendizabal, Lopategi, Maia eta Lujanbioren bertsoak aurkituko dituzu. Bestalde, konpaktoak 140 minutuko iraupena izango du eta kaset bikoitzak, ostera, bi ordukoa. Bertso gehien bilduko duen euskarria liburua izango da: 600 bat bertso izango dira eta eranskin moduan txapelketan zehar ateratako doinu berriak azalduko dira, partitura eta guzti.

*- 90 minutu. 2.000 PTA.*



Bada hiri gorri bat

Lorelei
***Bada hiri gorri bat***
Pop

Asier Serrano poesia idazlea eta Mikel Gorosabel "Norton" EH Sukarra taldeko kidea aspaldiko lagunak dira eta elkarrekin lan egin dute sarritan. Eibarko beste bi lagunekin batera, azken urtean landutako kantuekin disko konpaktoa kaleratu berri dute Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak-en eskutik. Ohiko pop tankerako 10 kantu; Nortonek landutako soinu garbiak eta Serraroren morbo eta gau giroko hitzak.

*- Gaztelupeko Hotsak. 2.200 PTA.*

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak
GASTON Y DANIELA
Eta *orain* gazteendako, umeendako eta ume jaioberriendako *altzariak*
Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuin

1. Mendekua jaso duena. 2. Une honetan. Ikusmenik ez duen pertsona. 3. Zati lau. Herbeherak. 4. Bostehun eta bat. Toka, daramazu. 5. Zah. eta lapurteraz, oilagorra. Jardun. Bat. 6. Bi piezez osatutako metalezko tresna. Errepikatuz, gorotza. 7. Taldea. Lehen bikoiti. 8. Arnas ezak hil. Musika tresna. 9. Euskal fonema. Karraskari mota. 10. Trakets. Non atzizkia.

### Goitik behera

1. Nekez moldatzen dena. 2. Eraikina. 3. Nauka. Edari alkoholdun. Röntgen. 4. Dostira. Haur hizkeran eta alderantziz, musu. 5. Arraza. Norabait. 6. Potasioa. Ekar arazi. 7. Emakume izena. Galdu aditzaren infinitiboa. 8. Kontsonante bustia. Musika nota. Lehen bakoiti. 9. Usnatu aditzaren infinitiboa. Iparraldean, usain txarra. 10. Jezarleku mota. Zango atal

### Soluzioa

Ezker eskuin
1. Mendekatua. 2. Orain. Itsu.
3. Laurden. NL. 4. DI. Daramak.
5. Akai. Ari. I. 6. Kurrika. Ka.
7. Andana. Bi. 8. Ito. Organo.
9. Tz. Arratoi.
10. Zarpail. An.

Goitik behera
1. Moldakaitz. 2. Eraikuntza.
3. Nau. Ardo. R. 4. Dirdira. aP.
5. Enda. Inora. 6. K. Erakarri.
7. Ainara. Gal. 8. Tt. Mi. Bat.
9. Usna. Kinoa. 10. Aulkia. Oin.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

### *Zein da baserri honen izena?*

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek zuzen erantzuteko gauza zaren!**

1. Nor izendatu dute Gipuzkoako Merkatal Ganbarako buru?
A- Jabier Berasategi
B- Fermin Mendizabal
C- Jabier Retegi

2. Txakur leren zein probatan parte hartuko du Axen Garitanok?
A- Pirenan
B- Pyrenaican
C- Transiberianoan

3. Noiz zabaldu zen Toki-Alai taberna?
A- 1974an
B- 1975ean
C- 1934an

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Lasa** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Begoña Urkizu**rentzat izan da: Gaspar jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Begoñari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Barrenkalea**. Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B**.

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izena-deitura: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela eguazten eguerdirako Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!***

LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA Tf.: 76 10 55, faxa: 76 20 29

**Zaragozakoa jaiotzez, Carmela Garciak 35 urte daramatza Bergaran bizitzen. Duela bost urte "Gaston y Daniela" (Estatu mailako katea) dekorazio denda ireki zuten. Carmelak hiru seme-alaba ditu eta dendan Amaiarekin ari da lanean.**

# Carmela Garcia



**Zeintzuk dira Gaston eta Daniela?**
Gaston frantsesa zen eta Daniela bilbotarra. Ezkonduta gero, 1876an, Bilbon lehen denda ireki zuten.
**Logotipotzat loro bat duzue...**
Itsasgizon batek loro bat ekarri omen zien Gaston eta Danielari. Ordutik...
**Zenbat ohial muestra duzue?**
Bost mila inguru.
**Zuk zeuk alfonbrak ala moketak nahiago?**
Moketak. Baina onena moketa gainean alfonbrak jartzea.
**Alfonbrarik onenak zeintzuk?**
Persiarrak.
**Alfonbra majikorik badago hemen?**
Ez, oraingoz horrelakorik ez...
**Dendan sartzeko nori jarriko zenioke alfonbra gorria?**
Inori ez eta guztioi; denok berdinak gara.
**Gusto onarekin jaio beharra dago ala ikasi egiten da?**
Sentsibilitatearekin jaio eta gero landu.
**Non ikusi dituzu tapiz ederrenak?**
Zaragozako La Seo katedralean.
**Zein garaikoak dira tapiz onenak?**
XVI-XVII. mendekoak.
**Etxeko txokorik gustokoena?**
Saloia.
**Zein koloretakoa da zure logela?**
Zuria eta artile-kolorekoa.
**Dekorazio aldizkari bat?**
*Nuevo estilo, El Mueble, Mi Casa...*
**Gustoko dekoratzaile bat?**
Pasqua Ortega.
**Emakume ala gizon gehiago etortzen da dendara?**
Emakumeak, batez ere.
**Dudatsuak ala zer erosi dakitenak nagusi?**
Dudatsuak.
**Hobby bat?**
Lorazaintza.
**Lorarik gustokoena?**
Denak, kaktus-ak ezik...
**Telebistako programa bat?**
Pelikulak gustatzen zaizkit gehien.
**Gustoko filme bat?**
*Tierras de penumbra.*
**Janari bat?**
Bakailaoa.
**Eta jan ezin duzun zerbait?**
Babarrunak.
**Mania bat?**
Puntualitatea.
**San Sebastian eguna ospatu duzu?**
Aurten ez baina urtetan joan izan naiz.
**Nora egingo zenuke bidaia bat?**
Txinara itzuliko nintzateke.
**Irla desertu batera zer ez zenuke eramango?**
Babarrun poltsa bat. B


AGIRRE JANTZIDENDA

1948 - 1998

50 URTEURRENA

urte bete ditugulako, %50eko beherapena.

Bidekurutzeta 18, Bergara. Telefonoa 76 12 64.




# Toki-Alai taberna, 1964

Garai batean Toki-Alai taberna egon zen zabalik Santalaitzen, gaur egun Soraluze kooperatiba dagoen lurzoruaren aurrean. Toki-Alai taberna Pedro Jose Iñarra eta Felipa Gantxegi senar-emazteek jarri zuten martxan 1934ko San Blas bezperan. 1960ko hamarkadaren erdialdean Acedo familiari traspasatu zioten taberna. Argazkikoak, hain zuzen, Acedotarrak dituzue eta argazkia 1966 urte ingurukoa da. Orduan ere tabernan jende asko ibiltzen zen, inguruko fabriketako langileek bertara joateko ohitura zeukaten eta. Egunean 200 litro ardo zerbitzen ziren garai hartan. Gasteiz-Maltzaga trenbidea taberna ondotik pasatzen zen eta taberna 1974 urterarte izan zen zabalik. Acedo familiak gogor lan egin zuen ordurarte. Horra hor argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Mila Acedo, Patro Zamora ama, Iñaki Acedo, Hermenegildo aita, Auri Acedo eta aurrean, Mari Jose Acedo, gazteena.

*Argazkia:* Marcial Moreno.

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Industria hornikuntzak UNIFE Industriaren alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
**Tf.** 79 42 22 • **F.** 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
**Tf.** 77 11 75 • **F.** 77 13 08

Zumelaga
JATETXEA
**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!**
San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

# Automobil aseguruak

**Mapfre abantailak**




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD
Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80

---

## MARKIEGI autoak

Autoen konponketa orokorra
Txapa eta pintura
Mekanika
Bankada unibertsala
Pintaketa labe-kabina
IAT-rako prestaketa linea
Direkzio alineazioa
Neumatiko zerbitzua




eta
BIGARREN ESKUKO
AUTOAK

Leizeaga 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa) *Telefonoa: 76 35 09*




Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik



Orain Euskadiko Kutxarren Ongizate Aurrezkia duzu.




Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberez gozatzen jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten.

**ONGIZATE AURREZKIA.**
Eperako Aurrezkia bezalakoa, baina eperik gabe.

*Informa zaitez sukurtsal honetan*

# Sukurtsal berria zabaldu dugu Fraiskozurin

34 urte bete dira Bergaran Euskadiko Kutxak lehenengo sukurtsala zabaldu zuenetik eta, atzo, eguena, inauguratu genuen Fraiskozuri 5ean bulego berria.

**Zerbitzu osoena eskaintzeko prestatuak**

Gure bezeroei zerbitzu osoena eta aurreratuena eskaintzeko prestatuta gaude. Bulego egoki eta atsegina aurkituko duzue sukurtsal berrian.

**Eskerrik asko guztioi**

Hau guztia posible egin duten gure bezeroei mila esker eman nahi dizkiegu urte hauetan Euskadiko Kutxaren profesionaltasunean izan duten konfidantzagatik.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA